ADMINISTRAZIO-KLAUSULA BEREZIEN AGIRIA

ZERBITZU **KONTRATUA**

Prozedura irekia

Espediente zk.: 2021-02

Xedea: CES-EGABen Itzulpen Zerbitzuaren Kontratazioa.

Edukia:

Baldintza orokorrak.

Eranskinak.

BALDINTZA OROKORRAK

I. KONTRATUAREN XEDEA ETA ALDERDI OROKORRAK.

1.- KONTRATUAREN XEDEA.

Kontratuaren xedea agiriaren karatulako 1. klausulan azaltzen dena da, eta baldintza tekniko berezien agirian dago definituta.

Xedea lotetan dagoenean zatikatuta, agiriko karatulako 1.2.2. klausulan azaltzen da lote bakoitzaren xedea, eta baldintza tekniko berezien agirian dago definituta.

CPV eta zerbitzugintzari dagozkion zerbitzuen kategoria agiriko karatulako 1.3. eta 1.5. klausuletan daude ezarrita, hurrenez hurren.

Kontratua segidako traktukoa bada eta xedeko zerbitzugintza-unitateen kopurua zehazki ematen bada, botere adjudikatzaileak emandakoak izango dira kontratistak betearazi beharreko zerbitzugintza-unitateak.

2.- KONTRATU-DOKUMENTUAK.

Honako hauek dira kontratu-dokumentuak:

a) Administrazio klausula berezien agiria (AKBA).

b) Baldintza tekniko berezien agiria (BTBA).

c) Kontratua formalizatzeko dokumentua.

d) Laneko programa da hala zehaztuta ageri bada agiriko karatulako 18.1. klausulan.

3.- KONTRATUAREN ARAUBIDE JURIDIKOA.

3.1.- Administrazio-kontratua da, eta ondoren azalduko diren arauek eta dokumentuek eraenduta dago:

3.2.- Kontratu-dokumentuetan ezarrita ez dagoen arlo guztietan, hauexek eraenduko dute kontratua:

a) Azaroaren 8ko 9/2017 Legea, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa (SPKL).

b) Herri Administrazioetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra (HAKLEO), SPKLn ezarrita dagoenaren kontrakoa ez bada.

c) Uztailaren 27ko 116/2016 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko kontratuaren araubideari buruzkoa, SPKLn ezarrita dagoenaren kontrakoa ez bada.

d) Maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batez garatu duena.

e) Ogasun eta Herri Administrazioko sailburuaren 2004. urteko abuztuaren 16ko Agindua, Herri Administrazioen kontratuen legerian ezarritako zenbait prozedura eta jarduketa telematika bidez izapidetzeari buruzkoa.

f) Estatuan nahiz Euskal Autonomia Erkidegoan kontratazioa arautzen duten eta aplikatu behar diren gainerako xedapen guztiak.

Horrez gain, zuzenbide administratiboko gainontzeko arauak aplikatuko dira eta, horiek ezean, zuzenbide pribatukoak.

3.3.- Aldeak beren beregi gelditzen dira kontratu-dokumentuetan ezarritakoaren menpe.
Dokumentu horietan ezarritakoa ez jakiteak ez du salbuesten kontratista bertako arauak nahitaez bete beharra izatetik, eta eskaintza aurkezteak berekin dakar lizitatzaileak baldintzarik gabe onartzea klausula guztiak, inolako salbuespenik gabe.

4.- HONAKO ARLO HAUEN GAINEKO INFORMAZIOA: ZERGAK, INGURUMENA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA, ENPLEGUAREN BABESA, LAN BALDINTZAK, LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA ETA EZINDUAK GIZARTERATZEA ETA LANERATZEA, EZINDUEN KOPURU EDO EHUNEKO ZEHATZ BAT KONTRATATZEKO BETEBEHARRA ETA DATUEN BABESA.

Ondoren aipatuko diren erakundeetan, honako hauen inguruko betebeharrei eta indarreko xedapenei buruzko argibideak eskuratu daitezke:

4.1.- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna: EMAKUNDE Erakunde Autonomoa.

4.2.- Fiskalitatea: Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetako eta Nafarroako Foru Erkidegoko Foru Ogasunak eta Zergen Administrazioko Estatu Agentzia.

4.3.- Ingurumenaren babesa: IHOBE Sozietate Publikoa:

4.4.- Enpleguaren babesa, lan baldintzak, laneko arriskuen prebentzioa: Lan eta Justizia Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritza eta OSALAN (Laneko Segurtasuneko eta Osasuneko Euskal Erakundea).

4.5.- Ezinduak gizarteratzea eta laneratzea eta ezinduen kopuru edo ehuneko zehatz bat nahitaez kontratatu beharra: LANBIDE Erakunde Autonomoa.

4.6.- Datuen babesa: Euskadiko Datuak Babesteko Euskal Agentzia.

5.- LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA, KREDITUA IZATEA, AURRETIAZKO IZAPIDETZEA ETA BALIO ZENBATETSIA.

5.1.- Agiriko karatulako 3.1. klausulan dago ezarrita kontratuko lizitazioaren oinarrizko aurrekontua, eta hala denean, klausula horretan ezarritako urtekoetan eta loteetan dago banatua.

5.2.- Agiriko karatulako 3.2. klausulan adierazitako aurrekontuaren aplikazioan, kontratuaren ondoriozko betebeharrei aurre egiteko beharrezko **kreditua** dago.

5.3.- Baldin eta espedientea **aurretiazko izapidetzekoa** bada agiriko karatulako 3.3. klausularen arabera, baldintza bat bete beharko da kontratua esleitu ahal izateko: kasuan kasuko ekitaldi ekonomikoan kreditu egokia eta nahikoa izatea.

5.4.- Agiriko karatulako 4. klausulan agertzen dena da **balio zenbatetsia**.

6.- KONTRATUAREN PREZIOA ETA KONTRATUAREN GEHIENEKO AURREKONTU MUGATZAILEA.

6.1.- Oroharreko prezioa zehaztuta duen kontratua: zenbatekoa oroharreko prezioaren bidez zehazten deneko kontratu orotan, adjudikaziodunak eskainitakoa izango da kontratuaren prezioa, eta inola ere ezin izan daiteke agiriko karatulako 5.1. klausulan agertzen den lizitazioaren oinarrizko prezioa (BEZ gabe) baino handiagoa.

6.2.- Prezioa prezio unitarioen bidez zehaztuta duen kontratua: prezioa zerbitzugintzako osagaiei, burutzapen- edo zerbitzugintza-unitateei edo denbora-unitateei dagozkien prezio unitarioen bidez zehazten deneko kontratuak direnean.

a) Xedea osatzen duten unitateen kopurua zehazki ematen denean: adjudikaziodunak eskainitako prezio unitarioa bider unitate kopuruarekin egitearen emaitza izango da prezioa.

b) Xedea osatzen duten unitateen kopurua zehazki ematen ez denean:

1) Adjudikaziodunak eskainitakoa izango da unitate bakoitzaren prezioa.

2) Kontratuaren gehieneko aurrekontu mugatzailea ezarriko da. Lizitazioaren oinarrizko kontratuaren berdina izan daiteke aurrekontua edo, adjudikaziodunak lizitazioaren prezio unitateen murrizketaren gaineko eskaintza egin badu, kontratazio-organoak ezarritako proportzioan murriztu ahal izango da.

Hala denean, botore adjudikatzailearen egiazko betebeharrek baldintzatuko dute aurrekontuaren egiazko gastua; izan ere, ez dago behartuta unitate kopuru jakin bat eskatzera, ezta osorik gastatzera ere.

6.3.- Baldin eta zerbitzugintzako zatietarako bi sistemak erabiltzen badira (oroharreko prezioa eta prezio unitarioak) prezioa zehazteko, agiriko karatulako 5.1. klausulan eta baldintza orokorren 6.1. eta 6.2. klausuletan xedaturikoa bete beharko da nahitaez.

6.4.- Esleipenari buruzko ebazpenean zehaztuko da prezioa edo kontratuaren gehieneko aurrekontu mugatzailea, betiere BEZa aparteko partida gisa adierazita eta, hala denean, urte askotarako banaketa.

6.5.- Zerga, tasa eta kanon aplikagarri guztiak biltzen ditu kontratuaren prezioak (edo prezioek), baita kontratuko baldintzak betetzearen ondoriozko beste edozein gastu ere.

7.- PREZIOEN BERRIKUSKETA.

Soilik berrikus daitezke prezioa baldin eta hala ezarrita badago agiriko karatulako 5.4. klausulan, klausula horretan bildutako formula aplikatuz.

8.- KONTRATUAREN INDARRALDIA: BETEARAZPEN-EPEA EDO KONTRATUAREN IRAUPENA. LUZAPENA.

8.1.- Traktu bakarreko kontratuak: hauxe da kontratua betearazteko epea:

a) Baldin eta eskaintzetan ezin bada epe osoa eta/edo epe partzialak laburtzea proposatu: agiriko karatulako 6.1. klausulan ezarritakoa.

b) Baldin eta eskaintzetan epe osoa eta/edo epe partzialak laburtzea proposatzeko modua badago: adjudikaziodunak eskainitakoak.

SPKLren 195.2. artikuluan xedaturikoarekin bat etorriz baizik ezin luzatu daitezke epe horiek.

8.2.- Segidako traktuko kontratuak: kontratuaren iraupena eta, hala denean, epe partzialak agiriko karatulako 6.1. eta 6.3. klausuletan ezarritakoak dira, hurrenez hurren.

8.3.- Segidako traktuko kontratuen luzapena: agiriko karatulako 6.4. klausuletan hala xedaturik dagoenean, kontratua luzatzea erabaki ahal izango du kontratazio-organoak, eta nahitaez bete beharko du luzapena kontratistak, SKPLren 198.6. artikuluan kontratua deuseztatzeko dakarren kausa gertzen denean izan ezik. Kontratuaren luzapena nahitaezkoa izan dadin kontratistarentzat, kontratuaren arduradunak abisua eman behar du kontratua bukatu baino bi (2) hilabete lehenago gutxienez.

Kontratazio-organoak kontratua deuseztatuta emango da luzapena, eta honako jarduketa hauek biltzen ditu luzapena erabakitzeko prozedurak:

a) Kontratuaren organo sustatzailearen txostena, kontratuko erlazioa, prezioa eta epea luzatzeko betebeharra dakarren interes publikoko arrazoiak zehazten dituena.

b) Kontratistari bost (5) egun balioduneko entzunaldi ematea.

c) Txosten juridikoa.

d) Kontrol ekonomiko-fiskalaren aurretiazko fiskalizazio-txostena, salbuetsita ez dagoenean.

e) Kontratazio-organoaren ebazpena.

9.- BERMEAK.

9.1.- SKPLren 108.1. artikuluan ezarritako formuletako batean aurkeztu ahal izango da behin-behineko bermea, eta SKPLren 106.3. artikuluan xedaturiko moduetan jarri beharko da.

Berehala azkenduko da behin-behineko bermea, eta kontratua hobetu eta berehala itzuliko zaie lizitatzaileei. Hautaturiko lizitatzailea denean, behin-behineko bermea itzuliko zaio behin betiko bermea jartzen duenean, SPKLren 106.4. artikuluan eta baldintza orokorren 23.4. klausulan xedaturikoarekin bat etorrita.

9.2.- Behin betiko bermea eta osagarria jarri ahal izango dira aurreko atalean ezarritako formulak erabiliz, eta prezioa atxikita, hala egiteko modua ematen bada agiriko karatulako 8.4. klausulan.

EAEko Diruzaintza Nagusian jarriko dira beti behin betiko bermeak eta osagarria.

9.3.- Aldi baterako enpresa-elkartea (hemendik aurrera ABEE) denean, ABEEko partaide batek edo hainbatek jarri ahal izango ditu behin-behineko bermeak eta behin betikoa, betiere oro har galdaturiko guztizko kopurua lortzen bada eta batera eta solidarioki bermea ematen bazaie kide guztiei.

10.- KONTRATUGILE-PROFILA ETA KONTSULTAK.

10.1.- Esteka honen bidez sartu beharko da EAEko Kontratazio Publikoaren kontratugile-profilean: http://www.contratacion.euskadi.eus edo http://www.cesegab.com/Perfil-del-contratante

10.2.- Honako datu eta argibide hauek argitaraturiko dira kontratugile-profilean:

1. Hala denean, aurretiazko informazio-iragarkia.
2. Lizitazioaren iragarkia.
3. Espedientea onesteari buruzko ebazpena.
4. ABKA, BTBA eta dokumentazio osagarria.
5. Kontratuaren xede zehatza, iraupena, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua.

6. Kontratua egiteko beharrari, egokitasunari eta kontratazioaren eraginkortasunari eta kontratuaren xedearekiko erlazio zuzenari, argiari eta proportzionalari buruzko justifikazio-memoria.
7. Baliabideak nahikoak ez izateari buruzko txostena.
8. Espedientea hasteko ebazpena, kontratazio-organoak sinatua.
9. Merkatuari buruzko aurretiazko kontsultak egin badira, eginiko kontsultei buruzko txostena, behar bezalako zioak ezarrita, SKPLren 115. artikuluan xedatu denarekin bat etorriz.
10. KEDB betetzeko xml artxiboa.
11. Kontratazio-organoari lagunduko dioten kontratazio-mahaien eraketa eta kideen kargua.
12. Balio-judizioaren menpeko esleipen-irizpideak aplikatzeko adituen batzordeko kideen izendapena, baldin eta horien esku-hartzea agiriko karatulako 19.2.7. klausulan ezarrita badago. Horrez gain, kideen kargua adierazi beharko da.
13. Kontratuaren publizitatea egiteko hedabideak eta argitalpen horiekiko estekak.
14. Hala denean, ABKAn edota BTBAn aldaketa nabarmenak sartzeko eta epea luzatzearen ondorioz eskaintzak aurkezteko mugako data berriak ezartzeko kontratazio-organoak emandako ebazpena edo ebazpenak, betiere jarduketen atzeraeragina ezartzea erabakitzeari kalterik egin gabe, SPKLren 122.1. eta 124. artikuluak direla bide.
15. Hala denean, ABKBek edota BTBAk akats materialak, izatezko akatsak eta akats aritmetikoak zuzentzeko kontratazio-organoak emandako ebazpena edo ebazpenak.
16. Baldintza agiriei eta/edo gainerako agiriei buruz argitu beharrak, bai erantzun lotesleak direnean agiriko karatulako 26.1.3. klausulan ezarritakoarekin bat etorriz, bai lotesleak ez direnean.
17. Esleipen-prozeduran parte hartzen duten lizitatzaileen kopurua eta nortasuna.
18. Kontratazio-mahaiaren jendaurreko saioak egiteko datak eta egunak eta, hala denean, aldaketak, baita horiek ikusteko modua emango duen web gunea ere, hala denean.
19. Onartutako eta baztertutako lizitatzaileen zerrenda eta, azken kasu horretan, baztertzeko arrazoiak.
20. Kontratazio-mahaien aktak.
21. Eskaintza bakoitzaren balio-judizioaren bidez zenbatu daitezkeen esleipen-irizpideak baloratzeari buruzko txostena.
22. Hala denean, SPKLren 149.4. artikuluan aipaturiko anomalia-presuntzioa duten eskaintzei buruzko txostena edo txostenak.
23. Eskaintzei esleituriko puntuazioak, azken horiek aktetan jasotzen ez direnean edo idatzi eta argitaratzen ez diren arte.
24. Kontratuaren esleipenari buruzko ebazpena.
25. Esleipendunaren nortasuna.
26. Esleipenaren zenbatekoa, Balio Erantsiaren gaineko Zerga barne.
27. Kontratua formalizatzeari buruzko iragarkia eta kontratu-dokumentua.
28. Hala denean, kontratua sinatzeari buruzko datu guztiak ez argitaratzeko arrazoiak adierazten dituen txostena, SPKLren 154.7. artikuluan xedatu denarekin bat etorriz.
29. Kontratazio-organoaren ebazpena, kontratua ez esleitzea edo ez sinatzea erabaki duena.
30. Esleipen-prozedurari uko egitea erabakitzeko kontratazio-organoak emandako ebazpena.
31. Esleipen-prozedura hutsik adierazteko kontratazio-organoak emandako ebazpena.
32. Errekurtsoak jartzea eta errekurtsoak jartzearen ziozko balizko esleipen-prozedura etetea.
33. Esleipen-prozedura baliogabetzeko ebazpena.
34. Kontratazio-organoak kontratua luzatzeko emandako ebazpena.
35. Kontratuaren aldaketari buruzko iragarkia/ak, kontratazio-organoak kontratua aldatzeko emandako ebazpena, justifikazioa, kontratistaren alegazioak eta, hala denean, onetsi baino lehen jasotako txosten guztiak.
36. Kontratuaren lagapena baimentzeko kontratazio-organoak emandako ebazpena.
37. Kontratazio-organoak ABEEren eraketaren aldaketa baimentzeari buruz emandako ebazpena.

10.3.- Interesa dutenek **kontsultak eta dokumentazio-osagarrirako edo informazio osagarrirako eskabideak** aurkeztu ahal izango dituzte agiriko karatulako 19.4. eta 5. klausuletan agertzen diren posta elektronikoko helbideak baliatuz. Idatziz egingo dira agiriko karatulako 26.1.1. klausulan agertzen den informazio-eskaerarako azken egunera arte, eta agiriko karatulako 26.1.2. klausulan agertzen den azken egunera arte (biak barne) hartu beharko dira.

II.- LIZITAZIOA.

11.- PARTE HARTZEKO BALDINTZAK.

11.1.- Kontrataziorako prozeduran parte hartu ahal izango dute pertsona naturalek edo juridikoak, espainiarrek nahiz atzerritarrek, baldin eta kontratatzeko debekurik ez badute eta kaudimenaren gaineko betekizunak betetzen badituzte edo, hala denean, sailkapena badute. Horrez gain, agiriko karatulako 21.4. klausulan ezarritako gaikuntzak izan behar dituzte, hala denean (baldin eta klausula horretan adierazi bada gaikuntza izan behar deneko unea "eskaintzak aurkezteko azken eguna" dela).

Aurreko paragrafoan aipaturiko beharkizunak betetzen dituzten eta ABEE osatzen duten hainbat pertsonak ere parte har dezakete, legez ezarritako baldintzekin bat etorrita.

Soilik parte hartu ahal izango dute SKPLren 66.1. artikuluan xedaturikoa betetzen duten pertsona juridikoek, baita operadore ekonomiko komunitarioek edo Europako Ekonomia Eremuari buruzko akordioa izenpetu duten estatuetakoek eta SKPLren 67. eta 68.1. artikuluetan xedaturikoa betetzen ez duten EBtik kanpoko operadore ekonomikoek ere, hurrenez hurren.

11.2.- Pertsona bakoitzak proposizio bakarra aurkeztu ahal izango du, salbu eta agiriko karatulako 24.4. klausulan aldagaiak onartzen badira. ABEEn ere ezin izango da proposamenik izenpetu beste batzuekin banaka aurkeztu bada proposamena, eta ezin ager daiteke ABEE batean baino gehiagotan. Arau horiek hausteak berekin ekarriko du hark izenpeturiko proposamen guztiak ez onartzea.

11.3.- Baldin eta agiriko karatulako 20.7 eta 20.8 klausuletan kontratua gizarteratzeko enpleguko zentro bereziei eta laneratzeko enpresei gordetzen bazaie edo babesturiko enpleguko programen baitan sartzen bada, SPKLren laugarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat etorriz, edo zenbait erakunderi SPKLren berrogeita zortzigarren xedapen gehigarriarekin bat etorriz, soilik parte hartu ahal izango dute, horrez gain, legez ezarritako betekizunak betetzen dituzten pertsonek (azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako ezinduen eskubideei eta ezinduak gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina; abenduaren 13ko 44/2007 Legea, laneratze-enpresen araubidea arautzeari buruzkoa; eta SPKLren berrogeita zortzigarren xedapen gehigarria ere bai).

11.4.- Gaitasunari, kaudimenari eta enpresa- edo lanbide-gaikuntzari buruzko inguruabarrak, hala denean, agiriko karatulako 21.4. klausulan galdaturikoak (salbu eta klausula horretan agertzen bada gaitasun horren jabe izateko unea "kontratua formalizatu baino lehenago" dela) eta kontratatzeko debekurik ez izatea: eskaintzak aurkezteko azken egunean izan behar dira eta kontratua hobetzeko une berean iraun.

Kontratazio-mahaiak ziurtagiri guztiak edo batzuk eta frogagiriak aurkezteko eska diezaieke lizitatzaileei prozedurako edozein unetan, baldin eta prozeduraren funtzionamendu ona bermatzeko beharrezkoa bada, kontratua esleitu baino lehen. Halaber, aurkezturiko ziurtagirien eta agirien gaineko edozer argitzeko eska dezake, edo beste agiri batzuk aurkezteko.

11.5.- Eskaintza aurkezteak berekin dakar lizitatzaileak agiri honetako klausulak eta gainerako kontratu-dokumentuetakoak baldintzarik gabe onartzea, salbuespenik gabe, baita honako hau egiteko baimena ematea ere kontratazio-mahaiari eta kontratazio-organoari: kontratua esleitzeko prozedurako edozein unetan kontsultatzea Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan, Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo operadore ekonomikoen zerrenda ofizialetan edo Europar Batasuneko estatu bateko datu-base nazionalean, betiere azken kasu horretan doan eskuratzeko modua badago. Operadore ekonomikoek ez dute dokumentazioa zertan aurkeztu erregistro, zerrenda eta datu-base horietan agertzen diren datuak egiaztatzeko.

12.- ESKAINTZAK AURKEZTEA.

12.1.- Hizkuntza.

Dokumentazioa euskaraz edo gaztelaniaz aurkeztu beharko da, edo ofizialki itzulita.

12.2.- Bitartekoak.

12.2.1.- Bitarteko elektronikoak: kontratuko klausula berezien 20.5. klausulan kontratua esleitzeko prozedura izapidetzeko bitartekoak elektronikoak ez direla ezarri ezean, bitarteko elektronikoen bidez aurkeztuko dira eskaintzak, KONTRATAZIO PUBLIKOA EUSKADIN PLATAFORMAN kokaturiko

LIZITAZIO ELEKTRONIKOKO SISTEMA delako aplikazioa baliatuz.

12.2.1.1.- Hona hemen bitarteko horiek erabiltzeko beharkizunak:

1. Beharkizun administratiboak:

a) EAEko Administrazioak izapidetze elektronikorako baimendutako erabilera duen ziurtagiri digitala izatea. Hauexek dira, gaur egun, ziurtagiri elektroniko horiek:

- Izenpe (Erakundea, Herritarra, Erakundearen ordezkaria)
- FNMT (Erakundea, Herritarra, Erakundearen ordezkaria)
- NAN-e
- Camerfirma (Erakundea, Herritarra)

b) Honako egoera hauetako batean egotea:

a. Alta emanda egotea eta indarreko ziurtagiria izatea EAEko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan.

b. Aldi baterako gaikuntza sisteman alta emanda egotea.

c. Baldin eta bi operadore ekonomiko edo gehiago taldean aurkezten badira, esleipendun gertatuz gero formalki ABEE eratzeko konpromisoa izanik: ABEEren konpromisoak aldi baterako gaikuntza sisteman erregistraturik egon behar du.

2. Beharkizun teknikoak:

Honako esteka honetan dago eskuragarri beharkizun teknikoei buruzko informazioa:

https://apps.euskadi.eus/w32-content/es/contenidos/informacion/licitar_electronicamente/es_02/cambios_configuracion.html

3. Lizitazio elektronikoari buruzko zalantzak edo gorabeherak argitzeko laguntza zerbitzua: **945016298**.

12.2.1.2.- Aurkezteko era:

a) Gutun-azalen egokietan eranskin gisa aurkeztu beharko dira kontratuaren klausula berezien 24. klausulan azaltzen diren dokumentuak. Izan ere, klausula horren arabera, aplikazioan agertzen dira dokumentuok.

b) Honako luzapen hauekin bildutako dokumentuak irakurtzea eta izapidetzea baizik ez da bermatzen: . doc, .xls, .ppt, .docx, .xlsx, .pptx, .pdf, .rtf., .sxw, .sdw, .abw, .xml, .jpg, .bmp, .tiff, .zip, eta .7z

c) Birusek sistemaren eraginkortasunean izan dezaketen eragina gutxitzeko asmoz, dokumentuak pdf, .rtf, .sxw, .jpg eta .tiff formatuetan bidaltzea gomendatzen da.

d) Eskaintza aurkezpen-epean jaso dela ulertuko da eskualdaketa epe horren barruan hasten bada eta arrakastaz bukatzen bada.

12.2.2.- Bitarteko ez-elektronikoak edo paperezkoak:

12.2.2.1.- Aurkezteko era:

a) Dokumentuak gutun-azal itxietan aurkeztu behar dira, eta operadore ekonomikoak edo haren ordezkariak sinatuta egon behar dute. Gutun-azal bakoitzaren barruan, bertan sartutako dokumentuen aurkibide zenbakitua bilduko da, eta gutun-azal bakoitzaren kanpoaldean honako datu hauek bilduko dira:

1) Kasuan kasuko gutun-azalaren identifikazioa (A, B, C edo beste batzuk), kontratuaren klausula berezien 24. klausulan ezarritakoaren arabera.
2) Kontratuaren identifikazioa: espediente zk. eta xedea.
3) Lizitatzailearen identifikazioa: pertsona juridikoa bada, sozietatearen izena eta IFZ adieraziko dira; pertsona fisikoa bada, izen-abizenak eta NAN zk. edo agiri baliokidea.
4) Eskaintza sinatzen duen pertsona fisikoaren identifikazioa: izen-abizenak eta NAN zk. edo agiri baliokidea.

b) Lizitazioari buruzko iragarkian edo kontratuko klausula berezien 19.6.1. klausulan ezarritako epean –eguna eta ordua- aurkeztuko dira gutun-azalak, edo posta bulegoan, ondoren, erregistro horietara igortzeko.

Baldin eta dokumentazioa posta bulegoan aurkezten bada, kontratuko klausula berezietako 19.5. klausulan agertzen den helbidera igorritako posta elektronikoaren bidez iragarri beharko du bidalketa, egun berean. Posta elektronikoaren bidezko iragarkia baliozkoa izango da soilik bidalketa eta jasoketa agerrarazi badira, baita datak eta komunikazioen eduki osoa ere, baita igorlea eta hartzailea modu

sinesgarrian identifikatzen bada ere. Hala denean, inprimaturiko kopia eskuratuko da, eta espedientean utziko da jasota.

Bidalketari buruzko iragarkian, kontratuaren eta lizitatzailearen identifikazioa bildu beharko da (baldintza orokorren 12.2.2.1. klausulako a) hizkiko 2) eta 3) ataletan ezarritakoarekin bat etorriz). Iragarkiarekin batera, inposizioari buruzko frogagiria aurkeztuko da, posta bulegoak emana. Lizitazioaren iragarkian adierazitako egunetik egutegiko hamar (10) egun igaro badira eta dokumentazioa jaso ez bada, ez da inola ere onartuko.

12.2.2.2.- Dokumentazioa itzultzea.

Esleipendun gertatu ez diren lizitatzaileek, baldin eta dokumentazioa berreskuratu nahi badute, eskabidea helarazi beharko diote kontratazio-mahaiko idazkiari –espediente zk. eta dokumentuak hartzera joango den pertsona fisikoa identifikatuta- eta administrazio-bulegoetara joan dokumentuak jasotzera.

Dokumentuak eman baino lehen, dokumentuak hartzera doan pertsonaren NAN edo dokumentu baliokidea erakutsi beharko da, kontratua formalizatu denetik errekurtsorik jarri gabe zazpi (7) hilabete igarota. Baldin eta epe hori igarota ez bada dokumentazioa hartzen hilabeteko (1) epean, suntsitu egingo da dokumentazioa.

Jarduketa berak burutuko dira eta epe berak aplikatuko dira prozedurari uko egiten zaionean edo kontratua sinatzeari uko egiten zaionean.

12.3.- Isilpekotasuna.

Agiriren bat isilpekotzat jotzen duten lizitatzaileek beren beregi egin beharko dute izendapena - **II.3. ERANSKINA** beteta— eta argi agerrarazi, inprimatuta edo orri-bazterrean, isilpekotzat jotako dokumentuan bertan. Horrela ez bada izendatzen, dokumentua ez da isilpekotzat joko.

II.3. ERANSKINEAN, sekretu teknikoekin edo komertzialekin lotuta daudela-eta isilpekotzat jotzen duten eskaintzaren gaineko argibideak eta ezaugarriak adierazteaz gain, lotura hori justifikatzeko **arrazoi zehatzak azaldu** behar dituzte.

Eskaintza ekonomikoa ez da inola ere isilpekotzat joko. Eskaintza ekonomikoa isilpekotzat jotzen bada ere, izendapena ez da eginikotzat hartuko.

Isilpekotasunari buruzko izendapena ezin aplika dakioke lizitatzaileak aurkezturiko dokumentazio osoari, ezta eskaintza teknikoa egiaztatzeko agiri guztiei ere. Hala denean, edo adierazpenaren hedadura egokia ez denean, kontratazio-organoak zehaztuko du zein datu edo dokumentu hartu behar den halakotzat. Era berean jardungo du kontratazio-organoak baldin eta adierazpenak ez badu nahikoa ziorik lizitatzaileak isilpekotzat jo dezan hala izendaturiko informazioa.

Baldin eta lizitatzaileak ez badu beren beregi isilpekotzat jo daturik edota dokumenturik, aurkezturiko ezein datu edota dokumentu isilpekoa ez dela ulertuko da, betiere, salbuespenez eta horretarako zioak emanda, kontratazio-organoak isilpekotzat jo ez den informazioa isilpekotzat jotzeari kalterik egin gabe, hain zuzen ere enpresen interes legitimoei eusteko.

Halaber, eskaintza aurkeztutakoan, ezin izango da isilpekotzat hartu aurkeztu direnean hala izendatu ez diren datuak.

Baldin eta esleipen-prozeduran dokumentazioa aurkezten bada eta hasierako eskaintzaren barruan ez badago, isilpekotzat jo ahal izango dira dokumentazio horretako datuak edo agiriak, klausula honetako aurreko paragrafoetan azaldutako baldintzetan.

12.4.- Dokumentazioa egiaztatzea.

Aurkezturiko dokumentuan egiazkotasuna egiaztatu ahal izango du botere adjudikatzaileak, esleipen-prozedurak iraun bitartean nahiz kontratua esleitu eta formalizatu ondoren. Datuen faltsutasuna kontratuaren deuseztasun-kausa izan daiteke. Horren ziozko deuseztasun-adierazpena operadore ekonomikoari egotz dakiokeen ez-betetzea izango da, eta izandako kalte-ordainak eman beharko dizkio botere adjudikatzaileari.

12.5.- Jakinarazpenak eta komunikazioak.

12.5.1.- Jakinarazpena eta komunikazioa behar duten jarduketak. Esleipenari buruzko erabakia eta SPKLren 44.2. b) hizkian zehazturiko izapidetzeak jakinarazi beharko dira.

12.5.1.1.- Komunikazioak dira zerbait argitzeko eskaerak, hutsuneak edo ez-egiteak konpontzeko errekerimenduak, agiri honetan ezarritako dokumentuak aurkezteko errekerimenduak eta SPKLren 44.2 b) artikuluan bilduta ez dauden bestelako izapidetzeak.

13.-A GUTUN-AZALA «AURRETIAZKO BEHARKIZUNAK BETETZEN DIRELA EGIAZTATZEKO AGIRIAK»

13.1.- Gutun-azalean agertu beharreko dokumentuen zerrenda: Kontrataziorako Europako Dokumentu Bakarra (KEDB), behar bezala beteta. https://ec.europa.eu/growth/tools-databases/espd/filter?lang=es helbidean eta kontratugile-profilean argitaraturiko xml artxiboan bete beharko da.

Halaber, egokiak diren KEDBak aurkeztuko dira baldintza orokorren 13.3. klausulan bildutako kasuetan.

13.1.1.- Behin-behineko bermea, agiri honetako karatulako 8.1. klausulak hala eskatzen badu.

13.1.2.- Bitartekoak atxikitzeko konpromisoa, **II.2. ERANSKINEAN** agertzen den ereduaren arabera.

13.1.3.- Zerbitzugintza burutzeko ardura duten langileen izenak eta lanbide-gaitasuna agiri honetako karatulako 21.5. klausulan hala eskatzen bada.

13.1.4.- Operadore ekonomikoak emandako argibideak isilpekotzat izendatzea, **II.3. ERANSKINEAN** agertzen den ereduaren arabera.

13.1.5.- ABEE formalki eratzeko konpromisoa, **II.4. ERANSKINEAN** bildua.

13.1.6.- Operadore ekonomikoak kontratuaren xedeko jarduera egiten duten langileen inguruan bere gain hartutako konpromisoei buruzko adierazpena, **II.5. ERANSKINEAN** agertzen den ereduaren arabera.

13.1.7.- Baldin eta enpresa-talde bereko hainbat operadore ekonomikok eskaintza aurkezten badute, Merkataritzaren Kodearen 42.1. artikuluarekin bat etorriz, **II.6. ERANSKINA** bete beharko da nahitaez.

13.1.8.- Baldin eta loteak badaude agiriko karatulako 1.2. klausularekin bat etorriz, **II.7. ERANSKINA** beteko da eskaintza aurkezten deneko lotea edo loteak adierazteko; eta, baldin eta agiriko karatulako 20.4. klausulak hainbat lotetako eskaintzak aurkezteko modua ematen badu, eskaintzak biltzen dituen loteen konbinazioa adierazteko.

13.1.9.- Baldin eta agiriko karatulako 20.5. klausulan ezartzen bada izapidetzeko bitartekoak "ez-elektronikoak" direla, baldintza orokorren 12.5.3. klausulan xedatu denaren ondorioetarako, **II.8 ERANSKINA** bete beharko da.

13.1.10.- Operadore ekonomiko komunitarioak edo Europako Ekonomia Eremuari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetakoak badira eta kontratua Espainian betearazi behar bada, Espainiako edozein mailatako epaitegien eta auzitegien jurisdikzio pean jartzeari buruzko adierazpena erantsi behar dute, kontratuan zuzenean edo zeharka ager litekeen gorabehera orotarako, betiere, hala denean, operadore ekonomikoak balia lezakeen atzerriko barru jurisdikzionalari uko eginda.

13.1.11.- Hainbat operadore ekonomiko ez-komunitario badira, SPKLren 68.1. artikuluan arauturiko txostena aurkeztu behar dute. Halaber, baldin eta kontratua Espainian betearazi beharra badago, Espainiako edozein mailatako epaitegien eta auzitegien jurisdikzio pean jartzeari buruzko adierazpena erantsi behar dute, kontratuan zuzenean edo zeharka ager litekeen gorabehera orotarako, betiere, hala denean, operadore ekonomikoak balia lezakeen atzerriko barru jurisdikzionalari uko eginda.

13.2.- Kaudimena metatzea ABEEak direnean:

ABEEen kaudimen ekonomikoa, finantzarioa, teknikoa edo profesionala zehazte aldera, elkarteko operadore ekonomiko bakoitzaren ezaugarriak metatuko dira.

Baldin eta agiri honetako karatulako 21.2. klausularekin bat etorriz klausula horretan adierazitako kaudimenaren ordez 21.3. klausulan bildutako sailkapena ezartzeko modua bada eta ABEEko operadore ekonomiko guztiek sailkapen hori badute, zerbitzu-kontratista gisa metatuko dira banakako sailkapenak, agiriko karatulako 21.3. klausulan agertzen den sailkapen globala eskuratu ahal izateko.

Alabaina, baldin eta operadore ekonomiko guztiek sailkapen hori ez badute, ABEEak kaudimenaren inguruan galdaturiko betekizunak betetzen dituela ulertuko da, noiz-eta, elkarteko kide guztien ezaugarriak metatu ondoren, elkarteak honako beharkizun hauetako bat betetzen duenean:

- Kaudimenaren inguruko beharkizunak, agiriko karatulako 21.2. klausulan ezarriak.
- Agiriko karatulako 21.3. klausulan ezarritako Taldea, Azpitaldea eta Kategoria.

13.3.- Kontrataziorako Europako Dokumentu Bakarraren (KEDB) arau bereziak:

13.3.1.- Baldin eta kontratua lotetan badago banatuta eta hautaketa-irizpideak, hots, kaudimena egiaztatzeko bitartekoak, desberdinak badira loteen artean, lote bakoitzerako KEDB bat aurkeztu

beharko da. Hala ere, baldin eta kaudimena egiaztatzeko bitartekoak berdinak badira lote guztietan eta aldatzen direnak beharkizunak badira hain zuzen ere operadore ekonomikoak aurkezten duen eskaintzako lote kopuruaren arabera, KEDB bakarra beteko da guztietarako.

13.3.2.- Azpikontratistak:

13.3.2.1.- Hala adierazita baldin badago, agiriko karatulako 14.2. klausulako a) hizkian, halako moldez beteko dute operadore ekonomikoek KEDBren II. zatiko D atala non datu hauek adieraziko baitituzte:

- Azpikontratatu nahi den **kontratuko zatia/ak.**
- Azpikontratatu nahi duen zati horren edo zati bakoitzaren **ehunekoa.**
- eta **azpikontratistaren edo azpikontratisten izena edo enpresa-profila, kaudimen profesionaleko edo teknikoko baldintzei dagokienez zehaztua**.

13.3.2.2.- Hala ezarrita badago agiriko karatulako 14.2. klausularen b) hizkian, operadore ekonomikoek, aurreko 13.3.2.1. klausulan bildutako datuez gain, azpikontratatu beharreko langileen KEDB erantsi beharko dute (II. zatiko eta III. zatiko A eta B atalak behar bezala beteta) edo, hainbat pertsona badira, azpikontratatu beharreko pertsona bezainbeste KEDB, behar bezala sinatuta betiere.

13.3.3.- Kaudimena kanpoko bitartekoen bidez osatzea: baldin eta operadore ekonomikoak beste erakunde batzuen kaudimenera eta bitartekoetara jotzen badu, bere KEDB aurkeztu beharko du eskuratu nahi diren kaudimenei eta/edo bitartekoei dagozkien erakunde bakoitzaren KEDBarekin batera (pertsona edo operadore bezainbeste KEDB), sinatuta eta II. zatiko eta III. zatiko A eta B atalak behar bezala beteta, eta, hala denean, IV. zatia.

13.3.4.- ABEE: baldin eta hainbat operadore ekonomikok ABEEn parte hartu nahi badute, nor bere aldetik aurkeztu beharko da, non II. zatitik IV. zatirako zatietan eskaturiko informazioa ageri den, parte hartzen duen operadore ekonomiko bakoitzeko.

13.3.5.- Sailkapena: baldin eta kaudimenaren ordez agiriko karatulako 21.3. klausulan agertzen den sailkapena ezarri nahi bada, talde, azpitalde eta kategoria egokiak adierazi beharko dira KEDBko II. zatiko A atalean, kontratazio-mahaiko kideek sailkapen hori dakarren ziurtagiria ofizioz eskatzeko modua izan dezaten.

13.3.6.- Baztertzeko arrazoiak: III. zatiko D atalean xedatu denaren ondorioetarako, honako hauek dira baztertzeko arrazoi nazional hutsak (SPKLren 71.1. artikuluko d) hizkia):

- Lanpostuen % 2 ezinduentzako erreserba-kuota ez betetzea, ezinduen eskubideei eta horien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bateginako 42. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.
- Berdintasun plana nahitaez izan beharra ez betetzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 45. artikuluan xedatu denarekin bat etorriz, 250 langiletik gorako operadore ekonomikoak direnean.

III.- GUTUN-AZALAK IREKITZEA ETA ESKAINTZAK BALORATZEA.

14.- ESKAINTZAK BAZTERTZEKO ARRAZOIAK ETA ZALANTZAK ARGITZEKO ESKAERAK.

14.1.- Kontratazio-mahaiak **eskaintzak baztertzea** erabakiko du kasu hauetan:

a) Agiriko karatulako 24. klausulan ezarritakoa ez bestelako gutun-azala duen dokumentua dutenak, horren ondorioz eskaintzaren isilpekotasuna arriskuan badago.

b) Kontraesanak, ez-aipatzeak, akatsak edo ezabaketak badituzte eta horren ondorioz zer jartzen duen argi zehazterik ez badago.

c) Azterturiko eta onarturiko dokumentazioarekin bat ez etortzea.

d) Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua edo gehienekoak diren prezio unitarioak gainditzea.

e) Nabarmen aldatzea agiri honetan bildutako eskaintza ekonomikoaren eredua.

f) Zenbatekoan ageriko akatsa izatea.

g) Akatsen edo funsgabetasunen bat izatea eta horren ondorioz lizitatzaileak ezin ezagutzea.

h) ABKAn edo BTBAn ezarritako baldintzak edo beharkizunak ez betetzea.

i) Eskaintzea irakurtzea edo edukiaz jabetzea galarazten duen birusa izatea.

j) Baldin eta agiriko karatulako 20.5. klausulan ezartzen bada izapidetzeko bitartekoak "ez-elektronikoak" direla, eskaintza lizitazioaren iragarkian ezarritako epea bukatu ondoren aurkeztea.

k) Baldin eta agiriko karatulako 20.5. klausulan ezartzen bada izapidetzeko bitartekoak "ez-elektronikoak" direla, baldintza orokorren 12.2.2.1 klausulan ezarritako epea bukatu ondoren iragartzea bidalketa.

l) Baldin eta agiri honetako karatulako 20.5. klausulan ezartzen bada izapidetzeko bitartekoak "ez-elektronikoak" direla, kanpoan identifikatu gabeko gutun-azaletan aurkeztea eskaintza (A, B, C), edo itxi gabeko gutun-azaletan (B, C).

14.2.- Kontratazio-mahaiak esleipen proposamena egin aurreko edozein unetan **zalantzak argitzeko** eskatu ahal izango du, eskaintzak ulertu ahal izateko. Ez da onartuko, inola ere, zalantzak argitze horren bidez lizitatzaileek eskaintzan adierazitakoak aldatzea.

15.- AURRETIAZKO BEHARKIZUNAK BETETZEN DIRELA EGIAZTATZEKO AGIRIAK IREKITZEA ETA KALIFIKATZEA.

15.1.- Eskaintzak aurkezteko epea bukatutakoan, kontratazio-mahaia bildu egingo da A gutun-azalean denbora eta era egokian aurkezturiko dokumentuak kalifikatzeko.

Baldin eta ondorioztatzen badu azterturiko dokumentazioa egokia eta nahikoa dela beharkizunak betetzen direla egiaztatzeko, lizitatzaile guztiak onartuko ditu prozeduran.

Baldin eta azterturiko dokumentazioan konpondu daitezkeen akatsak edo ez-aipatzeak ikusten baditu, hiru (3) egun balioduneko epea emango die dokumentazioa aurkeztu duten lizitatzaileei, ikusitako akatsak edo ez-aipatzeak konpontzeko beharrezko dokumentazioa aurkez dezaten.

Emandako epea igarotakoan, akatsak zuzentzeko fase honetan aurkezturiko dokumentazioa aztertuko du kontratazio-mahaiak, eta lizitatzaileak onartzea edo baztertzea erabakiko du. Lizitatzaileren bat baztertzea erabakiko balu, baztertzeko arrazoiak bildu beharko ditu erabakiak.

15.2.- Onarturiko eta bazterturiko lizitatzaileen zerrenda kontratugilearen profilean argitaratuko da, betiere, azken kasu horretan, baztertzeko arrazoiak adierazita.

16.- ESKAINTZA IREKITZEA ETA BALIO-JUDIZIOA EGIN BEHARREKO APLIKAZIOARI DAGOZKION IRIZPIDEEN BIDEZ EBALUATU DAITEKEEN ZATIA EBALUATZEA.

16.1- Gutun-azalak jendaurrean irekitzea.

Kontratazio-mahaiak, jendaurreko bilkuran, lizitatzaileak onartzearen edo baztertzearen berri emango du eta, ondoren, onartutako lizitatzaileek aurkeztutako B gutun-azalak irekiko ditu.

16.2.- Kasu orokorra: Kontratazio-mahaiak ebaluatzea.

Kontratazio-mahaiak dokumentazioa igorri ahal izango dio kontratua sustatu duen zerbitzuari, eskaintzek BTBAn ezarritako zehaztapenaren kontrako ezer ez dakartela egiaztatu, baloratu eta horren araberako txostena egin dezaten.

Baldin eta zerbitzu sustatzaileak, ebaluazioa egitean, egiaztatu egiten badu eskaintzaren bat baldintza agirien kontrakoa dela edo beste gutun-azal batean eman beharreko dokumentuak edo datuak biltzen dituela, inguruabar hori agerraraziko du txostenean. Txostena egindakoan, kontratazio-mahaiari igorriko dio eskaintzako dokumentuekin batera.

16.3.- Salbuespenezko kasua: adituen batzordeak edo erakunde tekniko adituak egitea ebaluazioa.

Baldin eta agiriko karatulako 19.2.7 klausulak adituen batzordea edo erakunde tekniko aditua ezartzen badu eskaintzaren zati hori ebaluatzeko, izendaturiko organoari igorriko dio kontratazio-mahaiak dokumentazioa, ebaluazioa egin eta txostena eman dezan. Txostena egindakoan, kontratazio-mahaiari igorriko dio eskaintzako dokumentuekin batera.

17.- ESKAINTZA IREKITZEA ETA FORMULEN BIDEZ AUTOMATIKOKI EBALUATU DAITEKEEN ESKAINTZAKO ZATIA EBALUATZEA.

17.1.- GUTUN-AZALAK IREKI AURREKO JARDUETAK.

17.1.1.- Berekin balio-judizioa egitea dakarten irizpideak erabiltzen dira.

Baldintza orokorren 16.2. klausulako kasu orokorra gertatzen bada, C gutun-azala ireki bain lehen, honako jarduketa hauek egingo ditu kontratazio-mahaiak:

Jendaurreko bilkurako zatia hasi baino lehen:

- Kontratuaren zerbitzu sustatzaileak emandako balorazio-txostena aztertu, eskaintzak baloratu eta puntuazioak emango ditu.
- Baldintza orokorren 14.1. klausulan ezarritako kasuetan, eskaintzak baztertzea erabakiko du.

Jendaurreko bilkurako zatia hasi ondoren:

- Bilkuran parte hartzen dutenei jakinarazi egingo zaizkie eskaintza bakoitzari esleituriko puntuazioak eta, hala denean, baztertutako eskaintzen eta baztertzeko arrazoien berri emango da.

Baldintza orokorren 16.3. klausulan ezarritako salbuespenezko kasuan, eskaintzak ireki baino lehen, adituen batzordeak edo erakunde tekniko adituak esleituriko puntuazioak jakinaraziko ditu kontratazio-mahaiak eta, hala denean, bazterturiko eskaintzen eta baztertzeko arrazoien berri emango du.

17.1.2.- Ez da erabiltzen berekin balio-judizioa egitea dakarren irizpiderik.

Gutun-azalak ireki baino lehen, lizitatzaileak onartu edo baztertu izanaren berri emango du kontratazio-mahaiak.

17.2.- GUTUN-AZALAK IREKITZEA ETA ESKAINTZAK IRAKURTZEA.

Kontratazio-mahaiak, aurretiazko jarduketak egin ondoren, jendeaurrean irekiko ditu lizitatzaileek aurkezturiko C gutun-azalak, zeinen eskaintzak baztertu ez diren, eta eskaintzak irakurriko ditu.

18.- ESKAINTZAK EBALUATZEA.

Ondoren, honako jarduketa hauek burutuko ditu kontratazio-mahaiak beharrezkoak diren saioetan:

18.1.- Eskaintzetan eskaintzak baztertzeko baldintza orokorren 14.1. klausulan ezarritako kausaren bat dagoen egiaztatuko du eta, hala denean, baztertzeko erabakia emango du.

18.2.- Onartutako eskaintzek, hala denean, agiriko karatulako 22.3. klausulan ezarritako mugak gainditzen dituzten egiaztatuko du eta, hala bada, SPKLren 149.4. artikuluan ezarritako jarduketak egingo ditu. Kontratazio-mahaiak entzunaldirako epea zehaztuko du eskaintzen ezaugarrien arabera; gutxienez hiru (3) egun baliodunekoa eta gehienez hamar (10) egun baliodunekoa.

Prozedura hori bukatutakoan, bete ezinak direla iritzitako eskaintza guztiak baztertzeko edo onartzeko proposamena egingo dio kontratazio-organoari.

18.3.- Eskaintzen puntuazioak kalkulatu eta hoberena zein den zehaztuko du, eskaintza guztiek esleipen-irizpide guztietan lorturiko puntuak batuta.

Kalkulua egiteko, ez du aintzat hartuko baztertzeko proposamena egin zaion eskaintzarik.

Baldin eta bi eskaintzak edo gehiagok puntuazio bera lortu badute, berdinketa hausteko irizpide bereziak betetzeari buruzko egiaztagiriak gehienez hamar (10) egun balioduneko epean aurkezteko eskatuko die lizitatzaileei. Hain zuzen ere, hala denean, agiriko karatulako 23. klausulan ezarritako irizpideak dira. Baldin eta agiriko karatulako 23. klausulan ez bada ezarri irizpide berezirik, baldintza orokorren 19. klausulan berdinketa haustearen inguruan ezarritako irizpideak beteko dira.

19.- BERDINKETA HAUSTEKO IRIZPIDEAK.

Baldin eta agiriko karatulako 23. klausulan berdinketa hausteko irizpide berezirik ez badago, kontratua esleitzeko irizpideak aplikatu ondoren berdinketa gertatzen bada hainbat eskaintzaren artean, honako gizarte irizpide hauek hurrenkeran aplikatuta ebatziko da, eskaintzak aurkezteko epea bukatzeko unearekiko betiere:

a) Lizitatzaile bakoitzaren plantillan langile ezinduen edo gizarte bazterketan dauden langileen ehunekorik handiena izatea. Berdintasuna balego, plantillan langile finko ezinduen kopururik handiena lehenetsiko da, edo plantillan gizarte bazterketa jasaten duten langileen kopururik handiena duena.

b) Lizitatzaile bakoitzaren plantillan aldi baterako kontratuen ehunekorik txikiena duena.

c) Lizitatzaile bakoitzaren plantillan emakume langileen ehunekorik handiena.

d) Zozketa, aurreko irizpide horiek aplikatzearen ondorioz ez bada berdinketa hausten.

Irizpide horiek aplikatze aldera, irizpideok egiaztatu beharko dituzte, hala denean, lan-kontratuak eta Gizarte Segurantzako kotizazio-dokumentuak aurkeztuta, edo aipaturiko gizarte irizpideak egiaztatzeko zuzenbidean onartutako beste edozein agiri.

IV.- KONTRATUA ESLEITZEA ETA FORMALIZATZEA.

20.- ESLEIPEN PROPOSAMENA.

Kontratazio-mahaiak puntuaziotik handienetik txikienera sailkatuko ditu eskaintzak eta, sailkapen hori oinarri hartuta, esleipen proposamena helaraziko dio kontratazio-organoari.

Kontratazio-organoak kontratazio-mahaiaren proposamena onartuko du.

21.- ESLEIPENAREN AURRETIKO DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA.

21.1.- Kontratazio-organoak esleipen proposamena onartu ondoren, honako hau eskatuko zaio eskaintzarik hoberena aurkeztu duen lizitatzaileari: hamar (10) egun balioduneko epean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, honako agiri hauek aurkeztu ditzala:

1.- Jarduteko ahalmena egiaztatzeko:

1.1. Pertsona juridikoak diren lizitatzaile espainiarrek eskrituraren, eraketa-dokumentuaren, estatutuen edo sortze-aktaren bidez egiaztatuko dute jarduteko ahalmena, non jardueraren gaineko arauak jasota egongo diren. Hala denean, erregistro publiko egokian behar bezala inskribatuta egongo dira, kasuan kasuko pertsona juridiko motaren arabera.

1.2. Europar Batasuneko estatuetako edo Europako Ekonomia Eremuari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetako espainiarrak ez diren lizitatzaileek SPKLren 84.2. artikuluan xedatu denarekin bat etorriz egiaztatuko dute jarduteko ahalmena.

1.3. Gainerako lizitatzaile atzerritarrek SPKLren 84.3. artikuluan xedatu denaren arabera egiaztatuko dute jarduteko ahalmena.

2.- Ahalordetzea: eskaintza sinatzen duen pertsonak bere izenean ez dihardunean, edo lizitatzailea sozietatea edo pertsona juridikoa denean, horretarako nahikoa den ahalordetzea aurkeztu behar du sinatzen duen pertsonak. Lizitatzailea pertsona juridikoa bada, ahalordetze hori behar bezala egon behar da inskribatuta erregistro publiko egokian, baldin eta, kasuan kasuko pertsona juridiko motaren araberako araudi aplikagarriarekin bat etorriz, nahitaez inskribatu beharra badago.

3.- Kaudimena: baldin eta, agiriko karatulako 21.1. klausularekin bat etorriz, nahitaezkoa bada kaudimenaren gaineko gutxieneko beharkizunak betetzea, agiriko karatulako 25.1. klausulan ezarritako dokumentazioa aurkeztu behar du lizitatzaileak egiaztatzeko, salbu eta beharkizun horren ordez sailkapena ezarri bada.

4.- Enpresa- edo lanbide-gaikuntza: baldin eta agiriko karatulako 21.4. klausulan ezarri bada eskaintzak aurkezteko azken egunean gaikuntza izan behar zela.

5.- Kontratua burutzeko lizitatzaileak nahitaez ezarri beharreko baliabide materialak eta giza baliabideak erabiltzeko modua izatea, hala denean: agiriko karatulako 25.2. klausulan bildutako dokumentazioa.

6.- Beste erakunde batzuen kaudimena eta baliabideak izatea kontratuaren indarraldi osoan: lizitatzaileak beste erakunde batzuen kaudimenera eta baliabideetara jo baldin badu, **V.1. ERANSKINEKO "Beste erakunde batzuen kaudimena eta baliabideak izateari buruzko konpromisoa"** aurkeztu behar du nahitaez.

7.- Kontratatzeko debekurik ez izatea: kontratatzeko debekurik ez izateari buruzko egiaztagiria, SPKLren 85. artikuluan xedatu denarekin bat etorriz (**V.2. ERANSKINA**).

8.- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea. Sektore publikoarekin kontratatzeko zerga-betebeharretan egunean izateari buruzko ziurtagiriak eta sektore publikoarekin kontratatzeko Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan egunean izateari buruzko ziurtagiria. Baldin eta lizitatzaileak hainbat lurraldetan ordaindu behar baditu zergak, administrazio eskudun bakoitzak emandako ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

9.- Bermea: behin betiko bermea jarri izanaren frogagiria (salbu eta agiriko karatulako 8.2. klausulan hala galdatu ez bada) eta, hala denean, berme osagarria.

10.- Publizitate gastuak: hala ezarri bada agiriko karatulako 7. klausulan, dagozkion publizitate gastuak ordaindu izanaren frogagiria.

11.- Erreserbaturiko kontratuak: baldin eta agiriko 20.7 edo 20.8 klausularen arabera erreserbaturiko kontratua bada, erreserbarako baldintzak betetzen dituela agirien bidez egiaztatu beharko du lizitatzaileak.

12.- Hala denean, aurretik kopia soilaren bidez aurkeztu direnen artean eska daitezkeen originalak.

Bitarteko elektronikoak, informatikoak edo telematikoak erabiliz eman daitezke ziurtagiriak.

Baldintza orokorren 11.5. klausulan aipaturiko erregistroetan, zerrendetan eta datu-baseetan inskribatzeak klausula horretan ezarritako ondorioak izango ditu, erregistro, zerrenda eta datu-base horietako datuak egiaztatzeari dagokionez, betiere horietan sartzeko doakotasun beharkizuna betetzen bada.

21.2.- Errekerimendua ezarritako epean behar bezala bete ezean, eskaintzari uko egin diola ulertuko da. Hala denean, jarduketa hauei ekingo zaie:

- Lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3 eskatzea (BEZ gabe), zigor gisa, eta lehenik eta behin behin-behineko bermetik ordainaraziko da, horrelakorik jarri bada, betiere SPKLren 71.2. artikuluko a) hizkian ezarritakoari kalterik egin gabe.
- Dokumentazio bera jasotzea hurrengo lizitatzailearen aldetik, eskaintzaren arabera sailkatu diren hurrenkeran.

22.- KONTRATUA ESLEITZEA ETA ESLEIPENA JAKINARAZTEA.

22.1.- Esleipen proposamena aurkezteko dokumentazioa jaso eta hurrengo bost (5) egun balioduneko epearen barruan esleituko du kontratu kontratazio-organoak.

22.2.- Esleipenari buruzko ebazpena lizitatzaileei jakinaraziko zaie eta, hala denean, eskaintzaren zatien balorazioari buruzko txostena, zeinaren ebaluazioan balio-judizioa nahitaez egin beharra dakarten irizideak erabili diren. Horrez gain, ohikoak ez diren eskaintza baxuak justifikatzeko azterketa-txostena ere jakinaraziko da. Horiek guztiak kontratugilearen profilean argitaratu beharko dira hamabost (15) eguneko epean.

22.3.- Baldin eta 44. artikuluaren errekurtso berezi baten ebazpenaren ondorioz kontratazio-organoak nahitaez erabaki behar badu kontratua beste lizitatzaile bati esleitzea, hamar (10) egun balioduneko epea emango zaio baldintza orokorren 21. klausulan bildutako dokumentazioa aurkez dezan.

22.4.- Nolanahi ere, bitarteko elektronikoen bidez jakinaraziko da esleipena.

23.- KONTRATUA FORMALIZATZEA.

23.1.- SKPLren 153. artikuluan xedaturiko moduan eta epeetan formalizatuko da kontratua, baina aurretik agiri hauek aurkeztu behar dira:

a) ABEE eratu izanaren eskritura publikoa adjudikaziodunak ABEE batean taldekatuta aurkezten direnean.

b) Agiriko karatulako 9. klausulan, hala denean berariaz galdaturiko aseguruen kontratuen polizak: aseguraturiko pertsonen artean, kontratistak, azpikontratistak eta agiriko karatulako 19.1. klausulan bildutako botore adjudikatzailea bilduko dituzte. Horrez gain ordaindu izanaren frogagiria aurkeztu behar da.

c) Enpresa- edo lanbide-gaikuntza, hala zehaztuta badago agiriko karatulako 21.4. klausulan eta, gainera, klausula horretan ezarri bada gaikuntza horren jabetza izan behar dela nahitaez kontratua formalizatu baino lehen.

d) Agiriko karatulako 26.4. klausulan adierazitako dokumentazioa, hala denean.

23.2.- Kontratua formalizatu izana kontratugilearen profilean argitaratuko da, kontratuarekin batera, kontratua hobetu eta hamabost (15) eguneko epearen barruan. Halaber, kontratuak araudi bateratuaren menpe dagoenean, kontratua formalizatuaren iragarkia igorriko da Europako Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratzeko kontratua formalizatu eta hamar (10) eguneko epean.

23.3.- Baldin eta kontratua ezin bada formalizatu legez ezarritako epeetan esleipendunari egotz dakizkiokeen kausengatik, honako jarduketa hauek egingo dira:

- Lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3 eskatzea (BEZ gabe), zigor gisa, eta lehenik eta behin behin-behineko bermetik ordainaraziko da, horrelakorik jarri bada, betiere SPKLren 71.2. artikuluko b) hizkian ezarritakoari kalterik egin gabe.
- Kontratua hurrengo lizitatzaileari esleitzea eskaintzak sailkatu diren hurrenkeraren arabera, baina aurretik baldintza orokorren 21.1. klausulan bildutako dokumentazioa eskatu eta aurkeztu beharra dago.

23.4.- Baldin eta agiriko karatulako 8.1. klausulan behin-behineko bermea galdatu bada, kontratua formalizatutakoan, automatikoki azkendu eta kontratista bihurtu ez diren lizitatzaile guztiei berehala itzuliko zaie. Aurkezteko erabili den araubide bera erabiliko da itzulketa egiteko.

V.- KONTRATUA BETEARAZTEA.

24.- KONTRATUAREN ARDURADUNA.

Agiriko karatulako 19.2.2. klausulan adierazitako organoak kontratuaren ohiko burutzapena eta jarraipena egiteko dituen funtzioei kalterik egin gabe, kontratuaren arduradunari dagokio lanak ikuskatzea. Honako eginkizun hauek beteko ditu:

a) Baldintza orokorren 25.2. klausulan ezarritako laneko programa onesteko proposamena egitea kontratazio-organoari.

b) Idatziz ematea zerbitzugintza behar bezalakoa dela ziurtatzeko beharrezko jarraibideak.

c) Baldintza orokorren 32.1. klausulan ezarritako zerbitzuen egiaztapena onestea.

d) Baldintza orokorren 32.2. klausulan adierazitakoak, zerbitzugintza behar bezala burutzea eta onartzea egiaztatzeari dagokionez.

e) Kontratistak kontratua dela bide bere gain hartutako betebeharrak betetzen dituela ikuskatzea eta egiaztatzea, balizko ez-betetzeen berri ematea kontratazio-organoari eta, hala denean, kontratua suntsiaraztea edo zigorrak ezartzea proposatzea.

f) Baldintza orokorren 26. klausularen arabera kontratua burutzeko nahitaez atxikitako giza baliabideak eta baliabide materialak aldatzeko baimena ematea.

g) Sartu beharreko aldaketak proposatzea.

h) Kontratua burutzeko atxikitako langileen lan-baldintzei buruzko datuak eskatzea kontratistari.

i) Dokumentazio osagarria eskatzea kontratistari, kontratuaren indarraldi osoan hirugarren erakundeen kaudimena eta/edo baliabideak dituela egiaztatzeko; izan ere, kaudimen eta/edo baliabide horietan oinarritu zen kontratua esleitzeko prozeduran parte hartze aldera.

j) Kontratistak azpikontratistei eta/edo hornitzaileei nahitaez ordaindu beharra betetzen duela egiaztatzea, baldintza orokorren 28.3.2. klausulan xedatu denarekin bat etorriz.

k) Burutzapena berandutuz gero, atzerapen hori kontratistari egotz dakiokeen zehazten duen txostena ematea.

l) ABEEko kideen aldaketaren eta uztearen inguruan baldintza orokorren 35. klausulan bildutako txostenak ematea.

m) Honako hau eskatzea kontratistari: aktaren bidez egiazta dezala kontratua burutu ondoren datu pertsonalak zekartzaten fitxategi guztiak suntsitu edo ezabatu edo euskarri guztiak itzuli direla.

Kontratuaren arduradunaren izendapena aldatzen denean –agiriko karatulako 19.2.3. klausulan ageri da-, kontratistari jakinaraziko zaio berehala, idatziz.

25.- ZERBITZUAK BETEARAZTEA.

25.1.- Kontratu-dokumentuen eta jarraibideen menpe egotea.

Kontratu-dokumentuetan ezarritakoa, kontratistaren eskaintza eta kontratuaren arduradunak idatziz zerbitzuak burutzearen edo interpretatzearen inguruan emandako jarraibideak zorrozki betez burutuko dira zerbitzuak.

25.2.- Laneko programa.

Baldin eta agiriko karatulako 18.1. klausulan galdatzen bada, kontratistak kontratuaren arduradunari eman behar dio laneko programa zazpi (7) eguneko epean, kontratua formalizatzen denetik zenbatzen hasita. Programa horretan, BTBAko klausulan zehazturiko datuak eta argibideak bilduko ditu.

Gainera, AKBAn ezarritako epeak beteko ditu eta, hala denean, eskaintzan finkaturikoa. Kontratazio-organoak onetsiko du programa hamabost (15) egun balioduneko epearen barruan.

25.3.- Baimenak.

Kontratistari dagokio zerbitzua emateko eta beharrezko gastuak ordaintzeko behar diren baimen eta lizentzia guztiak ematea, publikoak nahiz pribatuak.

25.4.- Asegurua

Kontratistak nahitaezko aseguruak kontratatu behar ditu, baita, hala denean, agiriko karatulako 9. klausulan ezarritakoen kontratauari eutsi ere.

25.5.- Laguntza.

Kontratistak kontratua behar bezala garatzeko eta betetzeko beharrezkoak diren lanbide-zerbitzu guztiak eman behar dizkio botere adjudikatzaileari, kostu gehigarririk gabe, baita azalpenak emateko bileretarako laguntzak, jendaurreko informazioa eta kontratuaren arduraduna zerbitzua ematen den tokietara askatasunez joatea ere.

25.6.- Kontratistaren erantzukizuna.

Kontratista da eginiko lanen eta zerbitzugintzaren eta eginiko zerbitzuen kalitate teknikoaren arduraduna, baita esleipena egiteko ahalmena duenarentzako edo hirugarrenentzako ondorioen gainekoa ere, hain zuzen kontratua burutzean izan litezkeen ez-egiteak, metodo desegokiak edo ondorio okerrak direla-eta.

25.7.- Obra-proiektuak egiteko kontratuetako kalte-ordainak.

Baldin eta proiektuan ezarritako obraren burutzapenaren aurrekontua benetako kostutik % 20 baino gehiago desbideratzen bada, goitik nahiz behetik, kontratista aholku-emaileari egotz dakizkiokeen akatsen edo ez-egiteen ondorioz, kontratista horrek kalte-ordainak emango dizkio botere adjudikatzaileari SPKLren 315. artikuluan ezarritako baremoaren arabera.

26.- BURUTZAPENEAN ERABILITAKO BALIABIDEAK.

26.1.- Baliabideak atxikitzeko konpromisoa.

Kontratistak nahitaez atxiki behar ditu kontratuaren burutzapenean, hala denean, baliabideak atxikitzeko konpromisoan adierazitako baliabideak (**II.2.ERANSKINA**), baita kontratua kontratu-dokumentuetan ezarritako baldintzen eta epeen arabera burutzeko beharrezkoak direnak ere.

Soilik aldatu ahal izango dira adierazitako baliabide materialak aurretik kontratuaren arduraduna horren jakitun jarri ondoren, proposaturiko baliabideak galdaturiko beharkizunak betetzen dituela egiazta dezan eta baimena eman dezan zazpi (7) egun balioduneko epearen barruan, horretarako egiaztagiriak baliatuz. Baldin eta kontratuaren arduradunak ondorioztatzen badu baliabideak ez dituela baldintzak betetzen, idatziz jakinaraziko dio kontratistari eta erabakia hartzeko arrazoiak adieraziko ditu. Beste baliabide bat proposatu ahal izango du kontratistak.

Klausula honetan xedaturikoaren arabera baizik ezin izango dira aldatu adierazitako giza baliabideak. Nolanahi ere, aldaketa horren zioz lan-ingurunera egokitzearen balizko eragozpenak konpondu egin beharko dira aldaturiko pertsonaren eta sartzen den pertsonaren birjarpen-aldiekin, kostu gehigarririk gabe, beharrezkoa den denboran.

Honako prozedura eta baldintza hauen arabera egingo da aldaketa:

a) Kontratistak eskaturiko aldaketa: baldin eta, justifikaturiko zioengatik, aldaketaren bat egin behar badu, idatziz jakinaraziko dio kontratuaren arduradunari hamabost (15) egun baliodun lehenago –aldi baterako ezintasunetan edo heriotzetan izan ezik-, honako datu hauek adierazita:

- Ordeztu nahi den pertsonaren identifikazioa eta ordezteko arrazoia.
- Eskaturiko baldintzak betetzen dituen hautagaiaren proposamena, hura egiaztatzeko agiriekin batera.

Zazpi (7) egun balioduneko epearen barruan, ordezpena baimenduko du kontratuaren arduradunak edo, hautagaiak baldintzak betetzen ez dituela ondorioztatuz gero, idatziz jakinaraziko dio kontratistari, erabakia hartzeko zioak azalduta betiere. Kontratistak beste hautagai bat proposatu ahal izango du.

b) Botere adjudikatzaileak eskaturiko aldaketa: kontratua behar bezala burutzeko ordezpenen bat egitea beharrezkoa dela irizten badio, idatziz jakinaraziko dio kontratistari eta arrazoiak azaldu. Kontratistak, hamabost (15) egun baliodunen epean, eskaturiko baldintzak betetzen dituen hautagai bat proposatuko du gutxienez, eta hura egiaztatzeko agiriak aurkeztuko ditu proposamenarekin batera.

Zazpi (7) egun balioduneko epearen barruan, kontratuaren arduradunak baimena emango du ordezpena egiteko edo, ordezpena baimenduko du kontratuaren arduradunak edo, hautagaiak baldintzak betetzen ez dituela ondorioztatuz gero, idatziz jakinaraziko dio kontratistari, erabakia hartzeko zioak azalduta. Kontratistak beste hautagai bat proposatu beharko du aurreko atalean ezarritakoaren arabera.

Arau berak aplikatuko dira kaudimena egiaztatzeko emandako baliabideen inguruan, baita kontratistak lizitazio-aldian beste erakunde batzuen kaudimenera eta/edo baliabideetara jo badu ere.

26.2.- Langileen inguruko arau zehatzak.

Zerbitzugintzari atxikitako langileak kontratistaren menpe egongo dira soil-soilik; izan ere, enplegatzailea den aldetik dituen eskubideak eta betebeharrak izango ditu. Horretarako, honako betebehar hauek hartuko ditu bere gain:

a) Kontratua burutzeko atxiki beharreko langileak hautatzea, betiere hala denean, botere adjudikatzaileak lanbide-gaitasuneko beharkizunak betetzen direla egiaztatzeko agirietan ezarritako ahalmenari kalterik egin gabe.

b) Langileen egonkortasuna bideratzea eta langileriaren eraketako aldaketak unean unekoak direla eta justifikaturiko arrazoiengatik gertatzen direla zaintzea, zerbitzuaren funtzionamendu egokia ez aldatzeko (eskakizun hori justifikatzeko arrazoiak daudenean). Uneoro emango zaio horren berri botere adjudikatzaileari.

c) Enplegatzaile orok, berez, kontratua burutzeko atxikitako langileen inguruan duen ahalmena egiaz, eraginkortasunez eta etengabe erabiltzea. Hain zuzen ere hauexek hartzen ditu bere gain: soldatak negoziatzea eta ordaintzea; baimenak, lizentziak eta oporraldiak ematea; ordezkoak absentziak gertatzen direnean; Gizarte Segurantzaren arloko betebeharrak, kotizazioak eta bidezko prestazioak ordaintzea barne; laneko arriskuen prebentzioaren arloko betebeharrak; diziplina-ahalmena erabiltzea eta enplegatuaren eta enplegatzailearen arteko kontratuko harremanaren ondoriozko eskubide eta betebehar guztiak.

d) Kontratuan atxikitako langileek dagozkienak baino eginkizun gehiago betetzen ez dituztela bermatzea baldintzen agirietan kontratuaren xedetzat zedarrituriko jarduerarekiko.

e) Gutxienez koordinatzaile bat izendatzea, plantillakoa, honako eginkizun hauek betetzeko:

- Kontratistaren solaskidea izatea botere adjudikatzailearekin, kontratistaren eta kontratuan atxikitako langileen arteko komunikazioa bideratuz alde batekin eta botere adjudikatzailearekin bestetik, kontratuaren burutzapenaren ondoriozko alderdi guztiei dagokienez.
- Lana langileen artean banatzea eta zerbitzugintza behar bezalakoa izateko beharrezko aginduak eta laneko jarraibideak ematea.
- Langileei eratxikitako eginkizunak behar bezala betetzen direla ikuskatzea eta lanpostura agertzen direla kontrolatzea.
- Oporraldiak antolatzea.

f) Oporraldiak, lantzean behingoak nahiz iraunkorrak, direla-eta kontratua burutzeko atxikitako lan-taldearen eraketan izandako aldaketen berri ematea botere adjudikatzaileari.

26.3.- Lan-baldintzei buruzko informazioa.

Kontratistak nahitaez eman behar dizkio kontratuaren arduradunari ondorengo ataletan azaltzen diren datuak eta agiriak, kasuan kasuko epeen eta baldintzen arabera betiere:

a) Kontratua burutzeko atxikitako langile guztien lan-baldintzei buruzko datuak: posta elektronikoz emango dira, **VI.3. ERANSKINEAN** azaltzen den erantzunkizupeko adierazpeneko formularioa behar bezala beteta, errekerimendua jaso eta zazpi (7) egun balioduneko epean.

b) Kontratuaren arduradunak emandako datuen egiazkotasuna eta laneko betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko eskaturiko dokumentuak. Izan ere, betebehar horiek hartzen ditu bere gain enplegatzailea den aldetik: posta elektronikoz aurkeztuko dira, eskaneaturiko kopiaren bidez, errekerimendua jaso eta hamar (10) egun balioduneko epean.

Kontratuaren arduradunak, kontratuaren indarraldiko edozein unetan, informazio hori eska dezake eta, bereziki, SPKLren 130. artikuluan xedatu denaren ondorioetarako.

26.4.- Kontratua burutzeko tokia.

Botere adjudikatzaile kontratugilearen beraren lokaletatik bereizitako bulegoetan edo instalazioetan emango da zerbitzua. Ezinezkoa balitz, plantillak ez nahasteko, kontratistaren langileek ez dituzte partekatuko –horretarako inguruabar zehatzak gertatzen direnean izan ezik- laneko tokiak botere adjudikatzailearen zerbitzuko langileekin eta, gainera, bereizgarriekin identifikatuko dira kontratistaren langileak eta baliabideak, hala nola uniformeak edo errotulazioak erabiliz.

26.5.- Berme-araua.

Baldin eta kontratistak klausula honetan ezarritako betebeharrak ez betetzearen ondorioz botere adjudikatzailea zigortu egiten bada diru-kopuruak ordaintzera kontratistarekiko era solidarioan, kontratistari ordainaraziko dio legezko akzioen bidez ordaindutako zenbatekoa.

26.6.- Langileen subrogazioa.

Baldin eta laneko araudiaren arabera bidezkoa bada langileen subrogazioa, noiz-eta zerbitzua eman izan duen kontratistari ez beste operadore ekonomiko bati esleitu zaionean kontratua, kontratistak erantzun behar die subrogazioaren eraginpeko langileei ordaindu gabeko ordainsariei, baita gizarte segurantzan sortutako kotizazioei ere, kontratua suntsiarazten bada ere. Betebehar hori ez dagokio, inola ere, kontratista berriari.

Hala denean, botere adjudikatzaileak, ordainsari horiek ordaindu ez direla egiaztatu ondoren, kontratistari zor zaizkion diru-kopuruak atxikiko ditu ordainsariak ordaintzen direla bermatzeko, eta ez du behin betiko bermea itzuliko ordainsariok ordaindu izana egiaztatu arte.

27.- LANAREN, GIZARTE SEGURANTZAREN ETA LANEKO SEGURTASUNAREN ETA OSASUNAREN ARLOKO BETEBEHARRAK.

Kontratistak nahitaez bete behar ditu lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasunaren eta osasunaren arloko indarreko xedapenak, eta bereziki:

27.1.- Eman beharreko zerbitzugintza laneko ordenantzaren edo hitzarmen kolektiboaren menpe badago, kontratistak nahitaez bete behar ditu laneko ordenantzako xedapenak eta hitzarmen kolektiboa.

27.2.- Kontratistak laneko segurtasunaren eta higienearen gaineko nahitaezko edo beharrezko neurri guztiak hartuko ditu langileen bizitzan, osotasunean eta osasunean eragina izan dezaketen arriskuen prebentziorik onena lortzeko.

27.3.- Era berean, indarreko araudian ezarritako laneko arriskuen prebentzioaren arloko betebeharrak beteko ditu eta, kontrataturiko jarduerari ekin baino lehen, honako betebehar hauek betetzen direla egiaztatu beharko du:

a) Indarreko legeriaren araberako prebentzio-antolaketa ezarri izana.

b) Lan arriskuen prebentzioa enpresa kudeatzeko sistema orokorrean txertatzea, lan arriskuen prebentziorako plana ezarrita eta aplikatuta, urtarrilaren 17ko 39/1997 EDak onetsitako Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduko 2. artikuluaren arabera. Eskaintza hori egiaztatutzat joko da OHSAS 18001 Arauan oinarrituriko lan arriskuen prebentzioa kudeatzeko sistema ezarrita edukiz gero, Lanaren Munduko Erakundearen segurtasun eta osasun sistemei buruzko jarraibideak edo beste arau baliokide bat, betiere sistema horrek eskaturiko neurrien betetze-maila ebaluatzen eta egiaztatzen badu. Betebehar hori egiaztatzeko, bestelako edozein froga-bide erabil daiteke.

c) Arriskuen ebaluazioa eta kontrataturiko jarduerari dagokion prebentzioko jardueraren plangintza.

d) Lan arriskuen prebentzioari buruzko 31/1995 Legearen V. kapituluan ezarritako kontsulta eta partaidetza burutzeko modua arautzen duen prozedura idatzia izatea edo, hala denean, Segurtasun eta Osasun Batzordearen bileretako aktak.

e) Ezarritako segurtasun neurriak betetzeko kontrola arautzeko prozedura izatea, eta hala denean, Langileen Estatutuan, hitzarmen kolektiboan, etab. ezarritako diziplina neurriak hartuko dira langile guztien segurtasuna bermatzeko.

f) Arriskuen ebaluazioarekin lotutako prebentzioko baliabideak behar dituzten lanpostuen eta/edo jardueren zerrenda izatea.

g) Kontratuaren burutzapenean parte hartzen duten langile guztiek, inorenek nahiz kanpokoek, arrisku zehatzei, babes neurriei eta babeserako larrialdiko neurriei buruzko informazioa jasotzea lanean sartzean, baita haiei eragiten dieten arriskuen gaineko beharrezko prestakuntza jaso izana ere (31/1995 Legearen 18. eta 19. artikuluak), lan arriskuen prebentziorako planaren prozedurarekin bat etorriz. Bereziki, banakako babes ekipoen erabilerari buruzko prestakuntza eman izana.

h) Banakako babes ekipoak eman izanari buruzko frogagiria izatea, hala denean, beharrezkoak badira.

i) Jantoki eta atsedena hartzeko zerbitzu egokiak eta zerbitzu higienikoak eta aldagelak ematea, langileen kopurua eta laneko eremuen kokalekua kontuan izanik.

j) Halako moldez planifikatzea lanen garapena eta langileen kontratazioa non errespetatu egingo baitira langileen atsedenerako egunak eta aparteko orduak salbuespenezkoak izango baitira.

27.4.- Azpikontratataturiko kontratista kontratuaren burutzapenetik abiatzen bada, aurreko betebeharren gaineko frogagiriak eskatu beharko dizkiete apzikontratataturikoei, eta botere adjudikatzaile kontratugileari eman.

27.5.- Lana egitean langileei gertaturiko edozein kalte edo ezbehar gertatzen bada, haren erantzukizun peko indarreko arauetan xedaturikoa beteko du, baina erantzukizun hori ez da botere adjudikatzailearen mailara iritsiko.

28.- BURUTZAPENAREN BALDINTZA BEREZIAK.

Kontratistak nahiz azpikontratistek bete beharko dituzte burutzapenaren baldintza berezi horiek, baita agiriko karatulako 11. klausulan bildutakoak ere.

28.1.- Hizkuntzakoak.

28.1.1.- Baldin eta kontratuaren xedea burutzeak berekin badakar herritarrentzako zerbitzugintza, edo hirugarrenekiko edo oro har herritarrekiko harremanak badakartza, erabiltzaileak edo hirugarrenak, kasu bakoitzean, kontratuaren burutzapenean aukeraturikoa izango da enpresa kontratistaren eta erabiltzaileen edo harremanetako pertsonen arteko komunikazioan erabili beharreko hizkuntza, ahoz nahiz idatziz. Beren beregi hizkuntzarik aukeratzen ez denean, bi hizkuntza ofizialetan egongo dira kontratua burutzeko ardura duen kontratistak pertsona fisikoei eta juridikoei eginiko era guztietako jakinarazpenak eta komunikazioak, fakturak eta trafikoko beste dokumentu batzuk barne, betiere herritarrak hizkuntza aukeratzeko duen eskubidea noiznahi erabiltzeari eta hizkuntza ofizialetako bakarra eskatu ahal izateari kalterik egin gabe.

Nolanahi ere, beharrezko baliabide materialak eta giza baliabideak erabili beharko ditu kontratistak zerbitzuaren hartzailea den publikoarekiko arreta, informazioa eta komunikazioa uneoro euskaraz egiteko modua izateko.

Baldin eta, hitzarmen kolektibo aplikagarriko klausulak edo legea aplikatzeko, adjudikaziodun berriak subrogatu behar badu azkendutako kontratuari atxikitako langile-taldeekiko laneko harremanetan, eta talde horrek ez badu gaitasunik kontratuko klausulen agirietan ezarritako arloko beharkizunak betetzeko hizkuntzaren aldetik, kontratista berriak nahitaez bete beharko ditu subrogaturiko langileen ordezpenak, kasuan kasuko kontratuan eska daitezkeen euskara maila eta erabilera betetzen dituzten pertsonek bete beharrekoa.

28.1.2.- Txostenak, azterlanak, proiektuak edo antzeko beste lan batzuk egiteko xedea duten kontratuak direnean, bi hizkuntza ofizialetan eman beharko dira nahitaez, softwareen testu eta soinu interfazeak barne betiere.

28.2.- Soziala edo enpleguari dagokiona:

28.2.1.- Lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasunaren eta osasunaren arloko indarreko lege-xedapenak, arau-xedapenak eta xedapen konbentzionalak betetzea.

28.2.2.- Baldintza orokorren 26.3. klausulan xedaturikoa betetzea.

28.2.3.-Aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboan bildutako soldata ordaintzea kontratuaren burutzapenak iraun bitartean, langileari dagokion lanbide-kategoriaren arabera, baina ordaindu beharreko soldata ez da hitzarmen kolektibokoa baino txikiagoa izango.

28.2.4.- Gardentasun instituzionala ematea kontratua burutzearen ondoriozko datu guztiei.

28.3.- Azpikontratistentzako eta hornitzaileentzako ordainketa egiaztatzea:

28.3.1.- Kontratuan parte hartzen duten azpikontratisten eta hornitzaileen zerrenda zehatza igortzea kontratuaren arduradunari, hala eskatzen dionean, noiz-eta haren partaidetza hobetzen denean, bakoitzaren azpikontratazio edo hornidura baldintzekin batera, betiere ordainketaren epearekin erlazio zuzena badute.

28.3.2.- Kontratuaren arduradunari igortzea, hala eskatzen dionean, aurreko puntuan azaldutako azpikontratistentzako eta hornitzaileentzako ordainketak bete izanari buruzko frogagiria, zerbitzugintza bukatutakoan, merkataritzako eragiketetako berankortasunaren kontrako

borrokarako neurriak ezarri dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean eta SPKLren 216. artikuluan ezarritako epeen barruan.

29.- ISILPEKOTASUNA ETA DATU PERTSONALEN TRATAERA.

29.1- Isilpekotasuna.

Isilpekoa da kontratistak eskuratuko duen informazio oro. Kontratistak eta kontratuaren burutzapenari atxikitako langileek ezin erabil dezakete daturik eurentzat edo hirugarrenei eman aurretik kontratazio-organoaren baimenik izan gabe, eta nahitaez izan behar dituzte eskura dituzten baliabide guztiak edozein informazioren isilpekotasunari eta era erreserbatuari eusteko.

Nolanahi ere, datu pertsonalen trataera ez dakarten lanak egitean, galarazita dago horiek eskuratzea, eta nahitaezkoa da jakin daitekeen argibide ororen sekretua.

29.2.- Datu pertsonalen trataera.

Datu pertsonalen trataera dira datuak bildu, grabatu, gorde, sortu, aldatu, blokeatu eta ezeztatzeko modua ematen duten eragiketak eta prozedura tekniko automatizatuak, baita identifikaturiko edo identifika daitezkeen pertsona fisikoei dagokien edozein informazio ukitzen duten komunikazioetako, kontsultetako, interkonexioetarako eta transferentzietako datuen konexioak ere.

Baldin eta kontratuak berekin badakar datu pertsonalak tratatzea edo eskuratzea, SPKLren 25. xedapen gehigarrian xedaturikoa bete beharko da. Horrez gain, kontratistak, azpikontratistak eta burutzapenari atxikitako langileek hauxe bete beharko dute:

a) Trataeraren arduradunak esandakoaren arabera baizik ez ditu tratatuko datuak.

b) Datu pertsonalak soil-soilik kontratuaren xedea burutzeko erabiliko ditu.

c) Ez die datu pertsonalik emango hirugarrenei. Horretarako, datuak edo horiekin sortutako fitxategiak ez jakinarazteko, eskualdatzeko, lagatzeko edo emateko konpromisoa hartzen du, ahoz nahiz idatziz, bitarteko elektronikoak edo papera erabiliz edo informatika bidez hirugarrenei erakusteko; ikusteko ere ez.

d) Behartuta dago sekretua gordetzera eta Datu Pertsonalen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 10. artikuluan ezarritako neurriak hartzera -kontratua azkendu ondoren ere bai-, eta betebehar hauek betetzera:

1) Datu pertsonalak eskura ditzaketen langileen izen-abizenen, eginkizunen eta lan egiteko tokien zerrenda ematea kontratuaren arduradunari lanei ekin baino lehen. Baldin eta kontratuaren burutzapenean beharrezkoa bada beste pertsona batzuk sartzea, beste zerrenda bat emango du astebeteko epean, gertaera hori jazotzen denetik. Kontratistak nahiz zerrenda horietan agertzen diren langile guztiek formalki eta idatziz hitzartu egiten dute trataturiko datuen inguruko sekretu profesionalari eustea.

2) Agiriko karatulako 18.2. klausulan aipaturiko segurtasun neurri gehigarri guztiak abiaraztea, hala denean.

3) Kontratuaren burutzapena bukatutakoan, datu pertsonalak dituzten euskarri guztiak itzultzea edo datu horiek dituzten fitxategi guztiak desegitea edo ezabatzea, eta halaxe egiaztatzea akta bidez. Kontratuaren arduradunari emango zaio akta hala eskatzen duenean. Halako moldez desegingo da non ezinezkoa izango baita berreskuratzeko ezein prozesu aplikatzea.

e) Kontratuaren arduradunak kontrolak egin ditzake kontratuaren burutzapenean, segurtasun neurriak betetzen direla egiaztatzeko, eta hala denean, zuzenketa neurriak har ditzake.

30.- EGINIKO LANEN JABETZA ETA JABETZA INDUSTRIALEKO ETA INTELEKTUALEKO ESKUBIDEAK.

30.1.- Lanen jabetza.

Laneko edozein fasetan eginiko lanak botere adjudikatzailearen jabetza dira eta azken horrek, ondorioz, edozein unetan eska dezake zerbitzuaren zati bat emateko, betiere lana egiteko behin betiko programarekin bateragarria bada eta lanen garapen egokiari eragiten ez badio.

Halaber, zerbitzugintza aurretiaz jasotzeko eska dezake kontratistak, eta botere adjudikatzailearen esku gelditzen da jasotze hori onartzeko gaitasuna.

30.2.- Jabetza industriala eta intelektuala.

Jabetza intelektualeko edo industrialeko eskubideak babestuta dauden produktuak garatzeko eta eskura jartzeko xedea duten zerbitzuen kontratuek berekin dakarte eskubide hori adjudikatzaile kontratugileari lagatzea.

Horrenbestez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, ekoizpenaren formatu originalaz gain, jabetza intelektualeko eskubideak hartzen ditu bere gain eta, bereziki, lorturiko obra edo produktuak eta ekonomikoki ustiatu daitezkeen gainerakoak ekoizteko, banatzeko, jendaurrean komunikatzeko eta eraldatzeko eskubideak. Jabetza intelektualeko eskubide horiek esklusibotasunez eskuratzen dira, sinatzeko egunean dagoen edozein ustiapen eta/edo euskarri motaren gainean, Jabetza Intelektualaren Legearen Testu Bateginean ezarritako epearen barruan, eta munduko herrialde guztietara hedatzen da lurralde eremua, salbuespenik gabe.

Eskubide horren titulartasunak azken produktua edo lana ez ezik, lan, bozeto, eskema, aurretiazko dokumentu eta fluxu-diagrama guztien multzoa ere hartzen du bere baitan, baita, oro har, garapenerako egiten diren jabetza intelektualaren eta industrialaren xedekoak izan daitezkeen lan guztiak ere.

Kontratistak **informazio zehatza eman** behar dio Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari, kontrataturiko lanaren emaitzan sartuko diren aurretiazko ekarpenen inguruan izan litezkeen hirugarrenen edozein lege erreserbari eta eskubideei buruzkoa. Kontratistak nahitaez bermatu behar du eskubide eta erreserba horien menpeko elementu guztien erabilgarritasun osoa, eta bere gain hartzen ditu izan daitezkeen gastuak.

Kontratistak erantzukizun osoa izango du eta bere kargura izango da eskubide horiei buruzko erreklamazio oro. Hartara, kalte-ordainak eman beharko dizkio Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari, erreklamazioak jartzearen ondorioz harentzat izan litezkeenak hain zuzen ere, balizko ordezkaritzaren eta defentsaren ondoriozko gastuak barne.

Baldin eta kontratuaren xedea aplikazio informatikoak egitea eta garatzea bada, aurreko paragrafoko hirugarrenen erreserbei eta lege eskubideei buruzko informazioan nahitaez bildu beharko dira erabilitako iturri guztiak bertsioak eta jatorriak, osagai bakoitzari aplikaturiko lizentziak eta pilatzeko edo burutzeko erabiltzen den.

Lana egitean parte hartu duen edozein pertsonak edo kontratistak ezin izango dute lan eurentzat erabili, ezta lan horren zatiak, filmazioak, testuak, marrazkiak, argazkiak edo kontrataturiko lanaren elementu baliokideak hirugarrenei eman ere. Ezin izango dira horiek osorik edo zati batez argitaratu Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren berariazko eta idatzizko baimena izan gabe. Era berean, ez dira saiatuko jabetza industrialeko eta intelektualeko edozein eskubide erregistratzen, kontratuaren ondoriozkoak izan daitezkeen antzekoak direnak. Nolanahi ere, betebehar horiek ez betetzearen ondoriozko kalte-ordainen erantzulea izango da kontratista.

Kontratistak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari laguntzea hitzartzen du, baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak klausula honetan aipaturiko eskubide guztiak eraginkortasunez eskuratzeko eta/edo haren alde babesteko eskatzen dion dokumentazio oro sinatzeko ere.

31.- ZIGORRAK.

Legez kontratistari dagozkion kalte-ordainak eta akatsak konpontzeko betebeharrari kalterik egin gabe eta SPKLn edo baldintza orokorren 38. klausulan ezarritako kontratua suntsiarazteko posibilitateari kalterik egin gabe, zigorrak ezarri ahal izango dizkio kontratazio-organoak kontratistari, honako kausa hauengatik:

31.1.- Kausak eta zenbatekoak.

a) Hala denean, agiriko karatulako 13.1. klausulan aipaturiko ez-betetzeak. Klausula horretan aipaturiko zenbatekoak.

b) Berandutzea epe osoak edo partzialak betetzean: SPKLren 193.3. eta 193.4. artikuluetan aipaturiko zenbatekoa, agiriko karatulako 13.2. klausulan bestelakoak ezarri ezean.

c) Funtsezko kontratuko betebeharrak ez betetzea: kontratuaren gehieneko aurrrekontu mugatzailearen edo prezioaren **%1 eta % 10** bitartean, ez-betetzearen larritasunaren eta, hala denean, errepikatzearen arabera.

d) Agiriko karatulako 12.1.4. klausulan xedaturikoa ez betetzea: azpikontrataturiko zenbatekoaren **% 50** gehienez ere.

e) Baldintza orokorren 28.3. klausulan xedaturikoa ez betetzea: kontratuaren gehieneko aurrrekontu mugatzailearen edo prezioaren **% 0,01** zango da berandutzeko eguneko bakoitzeko zenbatekoa.

f) Eskaintzaren bidez hartutako konpromisoak ez betetzea, balorazio-irizpidetzat hartu direnak: kontratuaren gehieneko aurrekontu mugatzailearen edo prezioaren **%1 eta % 10** bitartean, ez-betetzearen larritasunaren eta, hala denean, errepikatzearen arabera.

g) Agiriko karatulako 12.2. klausulan adierazitako ingurumenaren, gizartearen edo lanaren arloko betebeharrak ez betetzea (ondorio horietarako, soldatak ez ordaintzea edo behin eta berriz ez betetzea izango da 12.2.2.1. klausulako ez-betetzea, edo hitzarmen kolektiboen ondoriozkoak baino soldata baldintza txarragoak aplikatzea, aplikazio larria edo dolozkoa bada). Kontratuaren gehieneko aurrrekontu mugatzailearen edo prezioaren **%0,5 eta % 10** bitartean, ez-betetzearen larritasunaren eta, hala denean, errepikatzearen arabera.

h) Laneko Segurtasun eta Osasun Plana aurkezteko epea ez betetzea eskatzekoa denean: berandutze egun bakoitzeko zenbatekoa hauxe izango da: euro bat kontratuaren gehieneko aurrekontu mugatzailearen edo prezioaren 5.000,00 euro bakoitzeko.

31.2.- Prozedura.

Kontratazio-organoaren ebazpenaren bidez erabakiko da zigorrak ezartzea, eta jarduketa hauek biltzen ditu erabakia hartzeko prozedurak:

a) Kontratuaren arduradunaren txostena, ikusitako ez-betetzeak identifikatu eta zigorraren zenbatekoa proposatzeko.

b) Bost (5) egun balioduneko entzunaldia ematea kontratistari, egoki iritzitako alegazioak egin ditzan.

c) Kontratazio-organoaren ebazpena.

d) Diru-kopuruak biltzea, kontratistari ordainketa osoagatik edo zatizko ordainketagatik ordaindu beharreko diru-kopuruetatik kenduta, edo, hala denean, jarritako bermearen gainean noiz-eta ordainketa horietatik ezin kendu daitekeenean.

32.- PREZIOA ORDAINTZEA.

Honako baldintza hauen arabera ordainduko da prezioa:

32.1.- Emandako edo betearazitako zerbitzuen egiaztagiria.

32.1.1.- Kontratistak zerbitzuen egiaztagiria aurkeztu beharko du agiriko karatulako 19.6.2. klausulan ezarritako erregistroan. Honako datu hauek bilduko ditu:

a) Espedientearen kodea.

b) Izena edo izen soziala eta kontratistaren IFZ.

c) Emandako edo betearazitako zerbitzuen zerrenda baloratua –hitzarturiko prezioen arabera-, (BEZ gabe).

d) Azpikontratistak betearazitako zerbitzugintzaren datuak: azpikontratisten izenak, eginiko lana, ezarritako baldintzak, zuzenean ordaintzeko epearekin lotuak.

e) Zerbitzuak dagozkion aldia (egiaztagiri partziala bada).

32.1.2.- Epea eta baldintzak.

Honako epe eta baldintza hauetan aurkeztu beharko da:

a) Agiriko karatulako 5.2. klausulan prezioaren ordainketa bakarra ezarrita badago: egiaztagiri osoa aurkeztuko da kontratuaren burutzapena bukatu eta hogeita hamar (30) eguneko epearen barruan.

b) Agiriko karatulako 5.2. klausulan prezioaren ordainketa partzialak ezarrita badaude: hogeita hamar (30) eguneko epearen barruan aurkeztuko dira egiaztagiri partzialak, klausula horretan ezarritako aldizkako muga-egun bakoitzetik zenbatzen hasita.

32.2.- Adostasuna eta faktura erregistratzea.

Kontratuaren arduradunak zerbitzuen egiaztagiria onetsi behar du zerbitzuak erregistratu eta hogeita hamar (30) eguneko epearen barruan, eta egun berean igorri behar dio onespenaren dokumentuaren kopia kontratistari, posta elektronikoz.

Onespenaren dokumentuaren kopia jasotakoan, kontratistak faktura aurkeztuko du agiriko karatulako 19.6.2. klausulan ezarritako erregistroan, faktura elektronikoari buruzko indarreko araudian xedaturik dagoen bezala, zerbitzua eman eta hogeita hamar (30) eguneko epearen barruan.

32.3.- Ordainketa.

Botere adjudikatzaileak ordainketa egin behar du zerbitzuen egiaztagiria onetsi eta hogeita hamar (30) eguneko epearen barruan. Baldin eta berandu betetzen badu ordainketa egin beharra, berandutze-interesak ordaindu beharko dizkio kontratistari aurreko paragrafoan aipaturiko epea betetzen denetik hasita, baita kobrantza kostuaren ziozko kalte-ordainak ere merkataritza eragiketen berankortasunaren kontrako borrokarako neurriak ezarri dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritakoaren arabera.

Nolanahi ere, honako honen menpe dago interesak sortzeko epea zenbatzen hastea: kontratistak emandako zerbitzuen egiaztagiria eta fakturak agiriko karatulako 19.6.3. klausulan ezarritako erregistroan aurkeztu izana. Baldin eta kontratistak ez badu betetzen faktura hori administrazio erregistroan aurkezteko hogeita hamar (30) eguneko epean, ez dira interesak sortzen hasiko faktura erregistroan aurkezten denetik hogeita hamar (30) eguneko epea igaro arte, baina botere adjudikatzaileak adostasuna onetsi gabe eta, bidezkoa bada, ordainketa egin gabe.

Kontratistak fakturak elektronikoki eman eta igorri behar ditu Euskal Autonomia Erkidegoko faktura elektronikoko zerbitzuaren bidez. Ez da nahitaezkoa fakturak elektronikoki ematea eta igortzea fakturaren zenbatekoa, BEZ barne, 5.000,00 euro baino txikiagoa edo berdina bada, edo faktura horren hartzaileak Euskadik atzerrian dituen ordezkaritzak badira, Ogasun eta Finantza sailburuak Euskal Autonomia Erkidegoko Fakturazio Elektronikoa eta Kontabilitate Erregistroa arautzeko 2014ko abenduaren 26an emandako Aginduan ezarritakoarekin bat etorriz. Alabaina, nolanahi ere faktura elektronikoa eman eta igorri beharko dute abenduaren 27ko 25/2013 Legearen 4. artikuluan ezarritako erakundeek, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari, haren organo autonomoei eta partzuergoei emandako zerbitzuengatik eta ondasunengatik.

33.- KONTRATUA ALDATZEA.

33.1.- Baldintzak.

Kontratua hobetutakoan, kontratazio-organoak soilik aldatu ahal izango du berau, interes publikoko arrazoiak tarteko, agiriko karatulako 16. klausulan eta SPKLren 205. artikuluan ezarritako kasuetan.

Interes publikoko arrazoiak dira aurrekontuen egonkortasuna lortzeko helburua dutenak, aurrekontuko ekitaldi egokian burutzen direnak hain zuzen ere.

33.2.- Prozedura.

33.2.1.- Aldaketa erabakitzeko prozedurak, nolanahi ere, honako jarduketa hauek biltzen ditu:

a) Traktu bakarreko kontratuak eta segidako traktuko kontratuak, kontratuaren xedeko unitate kopuru zehatz ezarri dutenak:

1) Kontratuaren arduradunaren txostena, aldaketa eskatzen duten interes publikoko arrazoiak, hedadura kualitatiboa eta kuantitatiboa, inguruabarrak eta inguruabar horien egiaztapen objektiboa zehaztuko dituena.

2) Prozedura hastea erabakitzeko kontratazio-organoak emandako ebazpena.

3) Bost (5) egun balioduneko entzunaldia ematea kontratistari.

4) Proiektua edo zehaztapen teknikoak idatzi dituenari entzunaldia ematea, hiru (3) egun balioduneko epean, baldin eta kontratazio-organoak ez beste batek prestatu baditu.

5) Txosten juridikoa.

6) Kontratazio-organoaren ebazpena eta kontratistari egineko jakinarazpena.

7) Aldaketaren iragarkia kontratugile-profilean argitaratzea, kontratistaren alegazioekin eta, hala denean, onetsi baino lehen bildutako txosten guztiekin batera.

8) Aldaketaren iragarkia DOUEn argitaratzea baldin eta kontratua araudi bateratuaren menpe badago (salbu eta zerbitzua SPKLren IV. eranskinean bildutakoetako bat bada), eta aldaketa SPKLren 205.2. artikuluko a) eta b) hizketako kasuetako bati badagokio.

b) Prezio unitarioko segidako traktuko kontratuak, non zerbitzugintza-unitateen guztizko kopurua zehazki ezarri ez den kontratua sinatzean:

1) Kontratuaren arduradunaren txostena, hasieran zenbatetsitakoak baino egiazko behar handiagoak daudela justifikatzen duena eta haren hedadura ekonomikoa zehazten duena.

2) Prozedura hasteko kontratazio-organoak emandako ebazpena.

3) Kontratistari bost (5) egun balioduneko entzunaldia ematea.

4) Txosten juridikoa.

5) Kontratazio-organoaren ebazpena eta kontratistari eginiko jakinarazpena.

6) Aldaketaren iragarkia kontratugile-profilean argitaratzea, kontratistaren alegazioekin eta, hala denean, onetsi baino lehen bildutako txosten guztiekin batera.

33.2.2.- Ondoren zehazturiko kasuetan, gainera, honako jarduketa hauek egin behar dira:

1) Kontratuaren gehieneko aurrekontu mugatzailea edo prezioa aldatzen bada, bermea doitu beharko du kontratistak egutegiko hamabost (15) eguneko epean, ebazpena jakinarazten denetik hasita.

2) Gobernu Kontseiluaren aldaketarako baimena ematea bi inguruabar hauek gertatzen direnean:

a. Sektore publikoko kontratuei buruzko araudian ezarritakoa baino iraupen luzeagoko kontratua izatea, bereziki zenbait kontratutarako, edo oro har zenbait kategoriatarako.

b. Aldaketa egitea kontratua suntsiarazteko kasua izango da.

3) Baldin eta agiriko karatulako 9. klausulan zenbait baldintza dituen aseguru zehatzen bat galdatu bada eta kontratua aldatzean baldintza horiek edo kontratua burutzeko epea edo iraupena aldarazten badira, beste aseguru-poliza bat kontratatu beharko du kontratistak, aurrekontuaren antzeko estaldurekin eta kapitalekin, edo egungoa luzatu, halako moldez non aldaketaren xedeko ezaugarriak estaliko baititu eta, hala denean, epealdi osagarria.

4) Baldin eta aldaketa ez badago ezarrita AKBAn, Batzorde Juridiko Aholku-emailaren txostena emango da kontratuaren gehieneko aurrekontu mugatzailea edo prezioa 6.000.000 eurokoa edo handiagoa bada eta aldaketak % 20tik gorako aldarazpena badakar berekin. Ondoz ondoko aldaketak erabakitzen badira, horiek guztiak kontuan hartuta kalkulatuko da ehunekoen aldaketa.

33.2.3.- Nolanahi ere, SPKLren 153. artikuluan xedatu denarekin bat etorriz gauzatuko da aldaketa, eta SPKLren 63. eta 207. artikuluekin bat etorriz argitaratuko da.

33.3.- Efektuak.

Klausulan xedaturikoarekin bat etorrita erabakitako aldaketak nahitaezkoak izango dira kontratistarentzat. AKBAn ezarrita ez dauden aldaketei dagokienez, SPKLren 206. artikuluan ezarritakoa bete beharko da.

34.- AZPIKONTRATAZIOA.

Baldin eta agiriko karatulako 14.1. klausulan azpikontratazioa onartzen bada, zerbitzugintzaren burutzapen partziala azpikontratatu ahal izango du kontratistak, klausula horretan ezarritako mugen barruan eta klausula honetan xedatu denarekin bat etorriz.

Baldin eta hirugarrenekin kontratatzen badu kontratistak kontratuaren zati bat, kontratuaren burutzapenaren erantzukizun osoa bereganatuko du botere adjudikatzailearen aurrean, agiri honetan zorrozki eta kontratuaren baldintzetan ezarritakoaren arabera, gizartearen edo lanaren arloko betebeharrak betetzea barne.

34.1.- Kontratuaren arduradunari jakinaraztea. Baldin eta kontratistak KEDBren II. zatiko D atala bete badu hain zuzen ere lizitazio-aldian baldintza orokorren 13.3.2.1 klausulan ezarritako eran eta bertan zehazki adierazitako baldintzetan egin nahi badu azpikontratazioa: **VI.2. ERANSKINEAN** agertzen den adierazpena igorri beharko dio kontratuaren arduradunari, behar bezala beteta eta sinatuta, azpikontratistak lanak burutzeari ekin baino bost (5) egun baliodun lehenago gutxienez.

a) Baldin eta kontratistak KEDBren II. zatiko D atala bete badu hain zuzen ere lizitazio-aldian baldintza orokorren 13.3.2.1 klausulan ezarritako eran, baina KEDBn ezarrita ez dauden baldintzetan egin nahi badu azpikontratazioa, edo aipaturiko atala bete ez badu: **VI.2. ERANSKINEAN** agertzen den adierazpena igorri beharko dio kontratuaren arduradunari, behar bezala beteta eta sinatuta, azpikontratistak lanak burutzeari ekin baino hamabost (15) egun baliodun lehenago gutxienez

34.2.- Azpikontratistentzako edo hornitzaileentzako ordainketaren baldintzak betetzea egiaztatzea.

Kontratistak justifikatu egin beharko du azpikontratistarekin edo hornitzailearekin hitzartutako ordainketaren baldintzak betetzea, SPKLren 216. artikuluan ezarritako mugak errespetatu behar dituztenak, baldintza orokorren 28.3. klausulan xedatu denarekin bat etorriz eta, azpikontratistei dagokienez, baldintza orokorren 32.1.1. klausulako d) hizkian xedatu denaren arabera.

35.- KONTRATUA LAGATZEA ETA ABEE-KO KIDEAK ALDATZEA.

35.1.- KONTRATUA LAGATZEA.

35.1.1.- Kasuak.

SPKLren 98. artikuluko kontratisten oinordekotza kasuei eta SPKLren 69.9. artikuluko ABEEren eraketa aldatzeko kasuei kalterik egin gabe, kontratua laga ahal izango da kasu hauetan:

1. Kontratistak kaudimenik ez badu, Konkurtsoei buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen 2.2. artikuluarekin bat etorrita, eta oraindik ez badu konkurtso adierazpena eskatu, betiere beste edozein prozeduratan kaudimengabetzat jo ez bada.

2. Baldin eta kontratista konkurtso-egoeran adierazi bada, edo likidazio-aldiari ekin bazaio edo konkurtsoa adierazteko eskumena duen epaitegia jakitun jarri badu finantzaketa berria eskuratzeko erabakia lortzeko negoziazioak abiarazi dituela, edo hitzarmenaren proposamen aurreratuarekiko atxikipenak lortzeko, konkurtsoen legerian ezarritako kasuetan betiere.

3. Kontratista pertsona fisikoa bada eta kontratua bukatu baino lehen erretiroa hartu nahi duela adierazi badu.

35.1.2.- Prozedura.

1. Lagapenerako baimena eskatzeko idazkia igorriko dio kontratistak kontratuaren arduradunari. Eskaera horrekin batera, honako agiri hauek aurkeztuko dira:

i. Kontratuaren lagapena eskatzea ahalbidetzen duen inguruabarraren gaineko egiaztagiria.
ii. Lagapen-hartzaileak SPKLren 214.2. artikuluko c) hizkian bildutako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen agiria.

2. Prozedura abiaraztea erabakitzeko kontratazio-organoak emandako ebazpena.

3. Kontratuaren arduradunak emandako txostena, non kontratuaren zenbatekoaren % 20 gutxienez betearazi izanaren beharkizuna bete behar den ala ez adierazteko eta, baiezkoa bada, bete den. Halaber, SKPLren 214. artikuluko 1. ataleko bigarren paragrafoan bildutako mugak betetzen direla adierazi beharko da.

4. Txosten juridikoa.

5. Kontratistak lagapena formalizatu deneko eskritura publikoaren zirriborroak aurkeztea.

6. Lagapena baimentzeko eta jakinarazpena kontratistari helarazteko kontratazio-organoak emandako ebazpena.

7. Kontratazio-organoak emandako ebazpena kontratugilearen profilean argitaratzea, lagapena baimentzen duena.

8. Lagapena eskritura publikoan formalizatzea.

9. Lagapen-hartzaileak bermea EAEko Diruzaintza Orokorrean gordailutzea. Lagatzaileak emandako bermea ez da itzuliko edo ezeztatuko harik eta lagapen-hartzailearen bermea formalki eratzen ez den artean.

35.1.3.- Baldintzak.

35.1.3.1.- Nolanahi ere, kontratazio-organoak lagapena eman ahal izateko, honako baldintza hauek bete behar dira:

1. SKPLren 214. artikuluko 2. atalean bildutako beharkizunak betetzea.

2. Lagatzailearen (kontratista) gaitasun teknikoak edo pertsonalak kontratua esleitzeko arrazoi determinantea ez izatea.

3. Lagapena ez izatea lehiakideen murrizketa eraginkorra merkatuan.

35.1.3.2.- Ez da baimenik emango kontratua lagatzeko kontratistaren ezaugarrien funtseko aldarazpena dakarrenean, ezaugarri horiek kontratuaren funtseko elementua badira.

35.1.3.3.- Kontratistaren (lagatzailea) eta lagapen-hartzailearen arteko lagapena eskritura publikoan formalizatuko da.

35.1.3.4.- Ez da itzuliko edo ezeztatuko lagatzaileak emandako bermea harik eta lagapen-hartzailearena formalki eratzen ez den arte.

35.2.- ABEE-KO KIDEAK ALDATZEA.

35.2.1.- Baldin eta ABEEren eraketa aldatzeak berekin badakar kideen kopurua handitzea, edo bat edo batzuk beste batekin edo batzuekin ordeztea, honako jarduketa hauek egingo dira:

1. ABEE kontratistak aldaketarako baimen-eskaera igorriko dio kontratuaren arduradunari. Eskaera horrekin batera, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

i. ABEEren eraketa aldatzea ahalbidetzen duen inguruabarren gaineko justifikazioa.
ii. Eraketa berriarekin eskaturiko kaudimenaren edo sailkapenaren gaineko beharkizunak betetzen direla eta elkarteko kide guztiek jarduteko ahalmena osoa dutela eta sektore publikoarekin kontratatzeko debekurik ez dutela egiaztatzen duten agiriak.

2. Prozedura abiarazteko kontratazio-organoak emandako ebazpena.

3. Kontratuaren arduradunak emandako txostena, gutxienez kontratuaren zenbatekoaren % 20 betearazi dela adierazten duena.

4. Txosten juridikoa.

5. Kontratistak eskritura publikoaren zirriborroa aurkeztea, non eraketa berria duen ABEE formalizatu baita.

6. Kontratazio-organoak emandako ebazpena, ABEEren eraketa aldatzeko baimena ematen duena, eta ABEE kontrastistarentzako jakinarazpena.

7. Kontratazio-organoaren ebazpena kontratugilearen profilean argitaratzea, ABEEren eraketa baimentzen duena.

8. ABEE eskritura publikoan formalizatzea.

9. ABEEk berme berria gordailutzea EAEko Diruzaintza Orokorrean. ABEEk aurretik jarritako bermea ez da itzuliko edo ezeztatuko harik eta berria eratzen ez den artean.

35.2.2.- Baldin eta elkarteak bat-egiteko, zatitzeko edo jarduera-adarra ABEE osatzen duten kideetako batekiko eskualdatzearen ondoriozko sozietate xurgatzailea, bat-egitearen ondoriozko sozietatea, zatiketaren onuraduna edo jarduera-adarraren eskuratzailea ez bada ABEEko kidea, baldintza orokorren 35.2.1. klausulan aipaturiko izapide berak beteko dira, salbu eta gutxienez kontratuaren zenbatekoaren % 20 gutxienez betearazteari dagokionez.

35.2.3.- Baldin eta ABEEko kide baten edo hainbaten konkurtso-egoera adierazten bada, likidazio-aldia ireki bada ere, SKPLren 69.9. artikuluko c) hizkian xedaturikoa bete beharko da, kontratua betearazteko berme gehigarriak emateari buruz SKPLren 212.5. artikuluan xedatu denarekin bat etorrita betiere. Hala denean, jarduketa hauek egingo dira:

1. ABEE kontratistak idazkia igorriko dio kontratuaren arduradunari, ABEEko kide baten edo hainbaten konkurtso-egoera egiztatzen duen agiriarekin batera, honako eskaera hauetako bat egiteko:

i. Kontratua burutzen jarraitzea gainerako kideekin. Kasu horretan, ABEEren eraketa berriarekin galdaturiko kaudimen beharkizunekin edo sailkapenarekin betetzeari buruzko egiaztagiria aurkeztu beharko da.
ii. Kontratua burutzen jarraitzea ABEEko hasierako kideekin, konkurtso-egoera adierazi zaienak barne.

2. Baldintza orokorren 35.2.1. klausulako 2. puntutik 9. puntura arteko puntuetan (3. izan ezik) azaldutako izapideak egitea. Eta, baldin eta kontratazio-organoak erabakitzen badu ABEEk kontratua kide guztiekin burutzen jarraitzea, konkurtso-egoera adierazi zaienak barne, ABEE kontratistak nahikoa berme gehigarriak eman beharko ditu kontratua behar bezala burutzeko, kontratazio-organoak bere ebazpenean adierazitakoak.

VI.- KONTRATUA AZKENTZEA.

36.- BETETZEA: EMATEA, JASOTZEA ETA LIKIDATZEA.

36.1.- Ematea eta behar bezala betetzen dela egiaztatzea.

BTBAn ezarritako zehaztapenekin bat etorriz emango da kontratuaren xedeko zerbitzugintza, baldintza orokorren 8. klausulan ezarritako epeetan betiere.

BTBAn bestelakorik ezarri ezean, hauxe da emateko data:

- Traktu bakarreko kontratuetan: kontratistak zerbitzugintza osoa kontratuaren arduradunari ematen dion eguna, BTBAn zehazturiko eran eta formatuan.
- Segidako traktuko kontratuetan: kontratua burutzeko guztizko epea bukatzen den eguna.

Hamabost (15) egun balioduneko epea emate-epetik zenbatzen hasita, kontratuaren arduradunak egiaztapen egokiak egingo ditu itundutako baldintzak behar bezala betetzen direla egiaztatzeko, eta egiaztapen-txostena emango du honako hauen inguruan:

a) Bete dela ondorioztatzen bada: kontratua onartu eta onarpen horretarako data proposatuko du –agiriko karatulako 15.2. klausulan adierazitako epean-, eta txostena igorriko dio kontratistari; espedienteak egiaztapen fisikoaren menpe badago, Kontrol Ekonomikoko Bulegoari.

b) Bete ez direla ondorioztatzen bada: ikusitako akatsak eta/edo ez-betetzeak identifikatu eta horiek konpontzeko jarraibideak zehaztuko ditu. Txostena igorriko dio kontratistari: akatsak zuzendu

c) beharreko epea zehaztu eta txosteneko ondorioen kontra idatzizko erreklamazioa bost (5) egun balioduneko epearen barruan aurkezteko modua dagoela jakinaraziko zaio.

Baldin eta kontratistak erreklamazioa aurkezten ez badu aipaturiko epearen barruan, jarraibideen araberakoa dela ulertuko da, eta ikusitako akatsak zuzendu beharko ditu nahitaez.

Baldin eta kontratistak adierazitako epean aurkezten badu erreklamazioa, egiaztapen-txostenaren eta kontratazio-organoaren erreklamazioaren berri emango du; hamabost (15) egun balioduneko epean emango du ebazpena.

36.2.- Akatsak zuzentzea.

36.2.1.- Akatsak zuzentzeko epea igarotakoan, kontratuaren arduradunak egiaztapen egokiak burutuko ditu emandako jarraibideak behar bezala betetzen direla egiaztatzeko eta, gehienez hamar (10) egun balioduneko epean, bigarren-egiaztapen txostena emango du:

a) Behar bezala bete dela ondorioztatzen bada: baldintza orokorren 36.1. klausulako a) atalean adierazitako jarduketak egingo ditu.

b) Bete ez direla ondorioztatuz gero: ikusitako akatsak eta/edo ez-betetzeak identifikatu eta egiaztapen-txostena igorriko die kontratistari eta kontratazio-organoari, zigorrak ezartzeko proposamenarekin batera, eta hala denean, gertaturiko inguruabarretako bati jarraituz, honako jarduketa hauetako bat egingo du:

1) Kontratua suntsiarazteko prozedura abiaraztea, bermea konfiskatuta, eta kontratistak nahitaez ordaindu beharko dizkio kalte-ordainak botere adjudikatzaileari, konfiskaturiko bermearen zenbatekotik gorako kopuruarekiko.

2) Akatsak zuzentzeko beste epe bat ematea, kontratuaren gehieneko aurrekontu mugatzailearen edo prezioaren % 25erainoko zigorra ezarrita.

Baldin eta kontratistak ez baditu akatsak zuzentzen horretarako emandako bigarren epean, kontratua suntsiaraziko da: bermea konfiskatu eta kontratistak nahitaez ordaindu beharko dizkio kalte-ordainak botere adjudikatzaileari, konfiskaturiko bermearen zenbatekotik gorako kopuruarekiko.

36.2.1.- SKPLren 315. artikuluan ezarritakoa bete beharko da akatsak eta hutsuneak zuzentzean.

36.3.- Onartzea.

Nolanahi ere, jaso arte, kontratistak itundutako baldintzak behar bezala betetzeko ardura izango du, baina ez da salbuetsiko eta ez du eskubiderik emango kontratuaren arduradunak aldeko egiaztapen-txostena eman izanak edo zerbitzu partzialen egiaztapenarekiko adostasuna agertzeak.

Baldin eta kontratuaren arduradunak ondorioztatu badu itundutako baldintzak behar bezala bete direla, kontratua onartuko da.

Kontratua onartzeko ekitaldira joango dira kontratuaren arduraduna eta kontratista ordezkatzen duena eta, espedientea egiaztapen fisikoaren menpe badago, Kontrol Ekonomikoko Bulegoko ordezkaria. Ekitaldirako deialdia, kontratuaren arduradunari egin beharrekoa, bost (5) egun baliodun lehenago igorriko da. Onartzeko ekitaldiaren gaineko akta egingo da, bikoiztuta, eta bertaraturiko guztiek sinatu behar dute.

36.4.- Likidazioa.

Baldin eta kontratuaren izaera dela-eta beharrezkoa bada eta/edo beren beregi adierazi bada SPKLren 309.1. artikuluko bigarren paragrafoan, onarpen edo adostasun akta jasotzen denetik hogeita (30) egun balioduneko epearen barruan, kontratazio-organoak likidazioa egitea erabakiko du, jakinarazi eta, hala denean, kontratistari ordainduko zaio, betiere faktura ez bada onarpena izan deneko egunaren ondoren aurkeztu.

Baldin eta kontratistak onarpena izan deneko egunaren ondoren aurkeztu bazuen faktura, hogeita hamar (30) eguneko epea hasiko da zenbatzen faktura agiriko karatulako 19.6.2. klausulan adierazitako erregistroan aurkezten denetik.

Baldin eta likidazioaren saldoa berandu ordaintzen bada, kontratistak eskubidea izango du kobrantzaren kostuen ziozko kalte-ordainak eta berandutze-interesak jasotzeko, merkataritzako eragiketen berankortasunaren kontrako borrokarako neurriak ezarri dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako eran.

37.- BERME-ALDIA ETA BERMEA ITZULTZEA.

37.1.- Kontratistaren betebeharrak.

Agiriko karatulako 15.4. klausulan ezarritako berme-aldian -kontatua onartzen den egunetik hasiko da zenbatzen-, kontratistak nahitaez zuzendu beharko ditu, bere kargura, eginiko lanek dituzten akatsak, horrelakoak egiaztatu badira, eta aipaturiko epearen barruan jakinarazi beharko dira idatziz.

Baldin eta, akatsak era eta epe egokian zuzentzeko erreklamazioa egin ondoren, kontratistak ez baditu zuzentzen, botere adjudikatzaileak Herri Administrazioetako Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 100. artikuluan ezarritako nahitaezko betearazpenerako bitartekoak erabili ahal izango ditu.

Berme-aldia igarota botere adjudikatzaileak akatsak zuzentzeko eskatu badu era eta epe egokietan, kontratista erantzukizunetik salbuetsita gelditukо da eginiko zerbitzugintzaren zioz, betiere obra-proiektuak egiteko kontratuetarako SPKLren 314. eta 315. artikuluetan ezarritakoari kalterik egin gabe.

37.2.- Bermea itzultzea.

37.2.1.- Baldin eta agiriko karatulako 15.4. klausulan berme-aldirik ezarrita ez badago, bermea itzultzeko edo ezeztatzeko agindua bilduko du likidazioaren erabakiak.

37.2.2.- Agiriko karatulako 15.4. klausulan berme-aldia ezarri bada, berme-aldia igarotakoan, honako jarduketa hauek egingo dituzte:

a) Berme-aldian erreklamaziorik egin ez bada era eta epe egokietan, edo egon arren, zuzendu egin badira: Kontratazio-organoak ebazpena emango du bermea itzultzeko edo ezeztatzeko.

Ebazpena eman eta kontratistari jakinaraziko zaio bi (2) hilabeteko epearen barruan berme-aldia bukatzen denetik, eta EAEko Diruzaintza Orokorrari edo botere adjudikatzaileari jakinaraziko zaio.

b) Berme-aldian erreklamazioak egin badira era eta epe egokietan eta kontratistak zuzendu ez baditu: kontratuaren arduradunak jarraibide egokiak emango dizkio kontratistari akatsak behar bezala zuzentzeko. Horretarako, epe bat emango zaio, eta epe horretan, lanen eta zerbitzugintzaren eta eginiko zerbitzuen kalitate teknikoaren arduraduna izaten jarraituko du SKPLren 311. artikuluko 2. atalean azaldutako eran, baina ez da izango berme-aldia luzatzearen ziozko diru-kopururik jasotzeko eskubiderik.

Baldin eta kontratistak ez baditu betetzen kontratuaren arduradunak horretarako emandako epean, bermea konfiskatuko da.

37.2.3.- Baldin eta agiriko karatulako 8.5. klausulan bermearen zati proportzionala itzultzea edo ezeztatzea onartzen bada, baldintza orokorren 37.1. eta 37.2. klausuletan ezarritakoarekin bat etorriz jardungo da. Berme-aldia ezarri bada, onarpen partzialaren hurrengo egunean hasiko da.

37.2.4.- Kontratua zehazteko datatik urtebete igarotzen bada eta, berme-aldia bukatzen bada eta onarpen formala onartu ez bada eta likidazioa egin ez bada kontratistari ezin egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, bermeak itzuli edo ezeztatu egingo dira SKPLren 110. artikuluan aipatzen diren erantzukizunak eskatuta. Kontratuaren balio zenbatetsia 100.000,00 eurotik beherakoa bada eta kontratista ETE bat bada –SKPLren 11.5. artikuluko erreferentzien arabera definitua-, urtebeteko epea sei (6) hilabetera murriztuko da.

38.-KONTRATUA SUNTSIARAZTEA.

SPKLren 211. eta 213. artikuluetan, 294. artikuluko c), d) eta f) hizkietan, herritarren aldeko zuzeneko zerbitzugintza dakarten zerbitzuen kontratuetan ezarritakoez gain eta, hala denean, agiriko karatulako 17. klausulan ezarritakoaz gain, kontratua suntsiarazteko kausak izango dira honako hauek:

a) Botere adjudikatzaileak zuzendaritzarako eta ikuskaritzarako dituen ahalmenei traba egitea, SKPLren 190. artikuluko bigarren paragrafoan xedatu denarekin bat etorriz.

b) Kontratistak isilpekotasuna errespetatzeko duen betebeharra ez betetzea.

VII.- GORABEHERAK ETA EGINTZAK BERRIKUSTEA.

39.-GORABEHERAK.

39.1.- Kontratazio-organoaren prerrogatibak

Kontratazio-organoak ebatziko ditu kontratua interpretatzearen, kontratua betetzeak dituen zalantzak argitzearen, kontratuaren burutzapenaren ondorioz kontratistari egotz dakiokeen erantzukizuna adieraztearen, burutzapena etetearen eta administrazio-kontratuen ebazpenaren eta horren ondorioen gaineko auziak, eta haren erabakiek administrazio-bidea bukatuko dute. Horien aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango da hilabeteko epean organo berean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa bi hilabeteko epean, jakinarazpena emango den egunetik zenbatzen hasita.

39.2.- Prozedura.

Agiri honetan eta sektore publikoko kontratuen araudian kasu zehatz horietarako ezarritakoa izan ezik, botere adjudikatzailearen eta kontratistaren artean kontratua burutzean eta azkentzean izan litezkeen gorabeherak kontraesaneko espedientearen bidez izapidetuko dira. Honako jarduketa hauek bilduko ditu, nahitaez:

a) Botere adjudikatzailearen proposamena edo kontratistaren eskaera.

b) Kontratistari bost (5) egun balioduneko entzunaldia ematea.

c) Kontratuaren arduradunaren txostena.

d) Hala denean, aholkularitza juridikoaren eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostena.

e) Esku-hartzea, aurreko epean eman beharrekoa.

f) Kontratazio-organoaren ziodun ebazpena eta kontratistarentzako jakinarazpena.

Salbu eta interes publikoko arrazoiak direla-eta justifikatuta badago edo gorabeherak direla-eta hala egin beharra badago, kontratua etetea zehaztuko du prozedura honen izapidetzeak.

40. EGINTZAK BERRIKUSTEKO ARAUBIDEA.

Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratu-errekurtsoen Administrazio Organoa da kontratazioaren arloko errekurtso berezia ebazteko eskumena duen organoa, SKPLren 44.1. artikuluan bildutako kontratuei dagokienez SKPLren 44.2. artikuluan ezarritako egintzen aurrean, baita behin-behineko neurriak hartzeko erabakia emateko ere.

SKPLren 44.1. artikuluak ez dakartzan zerbitzuen kontratuei dagokienez emandako egintzen kontrako ohiko errekurtsoak jarri ahal izango dira, Herri Administrazioetako Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarriak (112, 121 eta 123. artikuluak).

ERANSKINAK

LABURPEN-TAULA

I. AGIRIKO KARATULAKO ZENBAIT KLAUSULAREKIN LOTUTAKO INFORMAZIOA

☐	I.1. ERANSKINA.	LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUAREN KALKULUA: KOSTUA ETA BESTE GASTU BATZUK
☐	I.2. ERANSKINA.	LANEKO KONTRATUEN BALDINTZEI BURUZKO DATUAK
☐	I.3. ERANSKINA.	FORMULA MATEMATIKOEN SIMULAZIOA

ESKAINTZAN AURKEZTEKOA

II. A GUTUN-AZALENAN AURKEZTEKOAK.

☒	II.1. ERANSKINA.	KONTRATAZIORAKO EUROPAKO DOKUMENTU BAKARRA (KEDB)
☒	II.2. ERANSKINA.	BALIABIDEAK ATXIKITZEKO KONPROMISOA
☒	II.3. ERANSKINA.	ESKAINTZAK DAKARTZAN ARGIBIDEAK ISILPEKOTZAT IZENDATZEA
☒	II.4. ERANSKINA.	FORMALKI ABEE GISA ERATZEKO KONPROMISOA
☒	II.5. ERANSKINA.	KONTRATUAREN XEDEKO JARDUERA EGITEN DUTEN PERTSONEN INGURUKO KONPROMISOEI BURUZKO ADIERAZPENA
☒	II.6. ERANSKINA.	ENPRESA-TALDE BEREKO ENPRESAK
☐	II.7. ERANSKINA.	ESKAINTZA / ESKAINTZA INTEGRATZAILEA AURKEZTU DENEKO LOTEA/AK LOTEN KONBINAZIOA

Soilik izapidetzeko bitartekoak "ez-elektronikoak" direnean:

☒	II.8. ERANSKINA.	JAKINARAZPENETARAKO ETA KOMUNIKAZIOETARAKO DATUAK

III. C GUTUN-AZALEAN AURKEZTEKOAK

☒	III.1. ERANSKINA.	ESKAINTZA EKONOMIKOA

BESTE BATZUK:

☐	EZ DIRA ZEHAZTEN	

☐	III.2. ERANSKINA	PREZIO UNITARIOAK
☐	III.3. ERANSKINA.	AURREKONTUAREN JUSTIFIKAZIOA
☐	III.4. ERANSKINA	EPEAK

IV. B GUTUN-AZALEAN AURKEZTEKOAK

☐	EZ DIRA ZEHAZTEN	

☐	IV.1. ERANSKINA.	NAHITAEZKO DOKUMENTUAK. KARATULAKO 24.3. PUNTUAREN ARABERA.
☒	IV.2. ERANSKINA	DATOS SOBRE LAS PERSONAS QUE REALICEN LA ACTIVIDAD OBJETO DE CONTRATO

V. ESKAINTZARIK HOBERENA AURKEZTU DUEN LIZITATZAILEAK AURKEZTU BEHARREKOAK.

☒	V.1. ERANSKINA.	BESTE ERAKUNDE BATZUEN KAUDIMENA ETA BITARTEKOAK IZATEA KONTRATUAREN INDARRALDI OSOAN
☒	V.2. ERANSKINA.	SEKTORE PUBLIKOAREKIN KONTRATATZEKO DEBEKURIK EZ IZATEA
☐	V.3. ERANSKINA.	BANKUKO ABALAREN EREDUA. ABEE-EN BANKUKO ABALAREN EREDUA.
☐	V.4.	KAUZIO-ASEGURUAREN EREDUA. ABEE-EN KAUZIO-ASEGURUEN EREDUA.

ERANSKINA.	

VI. KONTRATISTAK AURKEZTEKOAK (BURUTZAPEN-ALDIAN).

☒	VI.1. ERANSKINA.	ZERBITZUEN EGIAZTAPENA ONESTEA
☒	VI.2. ERANSKINA.	AZPIKONTRATAZIOAREN KOMUNIKAZIOA
☒	VI.3. ERANSKINA.	LANEKO KONTRATUEN BALDINTZEI BURUZKO DATUEN GAINEKO ADIERAZPENA

I.1. ERANSKINA
LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUAREN KALKULUA: KOSTUAK ETA BESTE GASTU BATZUK

Hona hemen **..... espediente zenbakiaren** erreferentzia duen kontratuaren lizitazioaren oinarrizko aurrekontua kalkulatzeko kontuan hartutako kostuak eta gastuak:

A) ZUZENEKO GASTUAK:

a. Soldatak:

…

B) ZEHARKAKO KOSTUAK:

…

C) BESTELAKO BALIZKO GASTUAK:

a. …

D) EGITURAKO GASTU OROKORRAK:

E) ETEKIN INDUSTRIALA:

LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA:	**… euro**
BEZ (%....):	**… euro**
LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA, GUZTIRA:	**… euro**

.

I.2 ERANSKINA
LAN KONTRATUEN BALDINTZEI BURUZKO DATUAK

Hauexetako zerbitzu kontratua: (*adierazi kontratuaren xedea*)

Hitzarmen kolektiboa	Lanbide kategoria	Kontratu mota	Lanaldia	Antzinatasun-data	Kontratuaren mugaeguna	Urteko soldata gordina	Indarreko itunak

.....(e)n, 20…(e)ko ……..ren ……(e)(a)n.

Sinatuta:

I.3 ERANSKINA
FORMULA MATEMATIKOEN SIMULAZIOA

Prezio irizpidea balioesteko formularen simulazioa:

….. irizpideak balioesteko formularen simulazioa:

II.1. ERANSKINA
KONTRATAZIORAKO EUROPAKO DOKUMENTU BAKARRA (KEDB)

AURKIBIDEA

Honako zati eta atal hauek ditu formulario honek:

I. zatia: Kontratazio-prozedurari eta botere adjudikatzaileari edo erakunde esleipendunari buruzko informazioa.

II. zatia: Operadore ekonomikoari buruzko informazioa.
- A atala: Operadore ekonomikoari buruzko informazioa.
- B atala: Operadore ekonomikoaren ordezkariei buruzko informazioa.
- C atala: Beste erakunde batzuen gaitasunerako errekurtsoari buruzko informazioa.
- D atala: Operadore ekonomikoa oinarritzen ez den gaitasuna duten azpikontratistei buruzko informazioa.

III. zatia: Baztertzeko arrazoiak:
- A atala: Zigor penalei dagozkien arrazoiak.
- B atala: Zergak edo Gizarte Segurantzarentzako kotizazioak ordaintzeari dagozkion arrazoiak.
- C atala: Kaudimen ezari, interes gatazkei edo falta profesionalari dagozkien arrazoiak.
- D atala: Botere adjudikatzailearen edo erakunde esleipendunaren estatuko nazio legerian ezarrita egon daitezkeen bestelako baztertzeko arrazoiak.

IV. zatia: Hautaketa-irizpideak:
- α atala: Hautaketa-irizpide guztiei buruzko adierazpen globala.
- A atala: Egokitasuna.
- B atala: Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa.
- C atala: Gaitasun teknikoa eta profesionala.
- D atala: Kalitatea ziurtatzeko sistemak eta ingurumena kudeatzeko arauak.

V atala. Hautagai gaituen kopurua gutxitzea.

VI. atala. Amaierako adierazpenak.

I. zatia: Kontratatzeko prozedurari eta esleipena egiteko ahalmenari buruzko informazioa

KONTRATATZEKO PROZEDURARI BURUZKO INFORMAZIOA

I. zatian eskaturiko informazioa automatikoki eskuratuko da KEDB zerbitzu elektronikoa erabiltzean helbide honetan eskuragarri dagoen KEDB sortzeko eta betetzeko: https://ec.europa.eu/growth/tools-databases/espd/filter?lang=es

Kontratugilearen egokitasuna[1]	**Erantzuna**
Izena:	[ ]
Zein kontratu mota da?	**Erantzuna**
Kontratazioaren izenburua edo azalpen laburra[2]:	[ ]
Botere adjudikatzaileak edo erakunde adjudikaziodunak izendaturiko espedientearen erreferentzia zenbakia (hala denean)[3]:	[ ]

II. zatia: Operadore ekonomikoari buruzko informazioa

[1] DOUEren lizitazioaren iragarkiko I. ataleko I.1. puntuan agertzen den informazioa eman beharko da. Baterako kontratazioa bada, kontratista guztien izenak adierazi behar dira.
[2] Ikusi lizitazioaren iragarkiko II. 1.1 eta II 1.4 puntuak.
[3] Ikusi DOUEren lizitazioaren iragarkiko II.1.1 puntua.

A: OPERADORE EKONOMIKOARI BURUZKO INFORMAZIOA

Identifikazioa	**Erantzuna**
Izena:	[ ]
BEZ zenbakia, hala denean[4]: BEZ zenbakirik ez badago, adierazi eskatzen denean, hala denean, identifikazio nazionaleko beste zenbaki bat.	[ ] [ ]
Posta helbidea:	[…]
Harremanetarako pertsona/ak[5]: Telefonoa: Posta elektronikoa: Interneteko helbidea (web orriaren helbidea, hala denean):	[…] […] […] […]
Informazio orokorra	**Erantzuna**
Operadore ekonomikoa mikroenpresa, enpresa txikia edo enpresa ertaina da?[6]	☐ Bai ☐ Ez
Kontratazio erreserbatua denean soilik[7]: operadore ekonomikoa tailer babestua edo enpresa soziala al da, edo kontratua enplegu babestuko programen baitan betearaztea aurreikusten aldu? **Baiezko erantzuna bada,** Zein da langile ezinduen edo ahulen ehunekoa? Beharrezkoa bada, zehaztu zein kategoriatakoak diren kasuan kasuko langile ezinduak edo ahulak.	☐ Bai ☐ Ez […] […]
Hala denean, operadore ekonomikoa baimendutako operadore ekonomikoen zerrenda ofizialean inskribatuta al dago, edo ziurtagiri baliokidea al du (adibidez, (aurre)sailkapeneko sistema nazional baten baitan)[8]?	☐ Bai ☐ Ez ☐ Ez da betetzekoa
Baiezko erantzuna bada: **atal honetako gainerako erantzunak erantzun behar dira, B atalekoak, eta egokia bada, zati honetako C atalekoak. Bete V. zatia egokia denean eta, nolanahi ere, sinatu VI. zatia** Adierazi zerrendako edo ziurtagiriko izena eta inskripzio edo ziurtagiri egokiaren zenbakia: Inskripzioa edo ziurtagiria formatu elektronikoan eskuragarri badaude, adierazi hauek: adierazi inskripzioak edo ziurtagiriak oinarritzat dituzten erreferentziak eta, hala denean, zerrenda ofizialean lortutako sailkapena[9]: Inskripzioak edo ziurtagiriak eskaturiko hautaketa-irizpide guztiak biltzen al ditu?	 […] (web orriaren helbidea, agintari edo erakunde bidaltzailea, dokumentazioaren erreferentzia zehatza): […] […] [...] [...] [...] ☐ Bai ☐ Ez

[4] Espainiako herritarrek edo operadore ekonomikoek beren IFZ adierazi beharko dute; Espainiako egoiliarrak ez diren herritar ez espainiarrek, berriz, AIZ; EBko estatuetako bateko operadore ekonomikoek IFZ-BEZ edo komunitate barruko IFZ edo, hala denean, DUNS zenbakia; EBkoa ez den estatu bateko operadore ekonomiko atzerritarrek DUNS zenbakia eraman behar dute.

[5] Errepikatu harremanetarako pertsonei buruzko informazioa behar beste alditan.

[6] Ikusi 2003ko maiatzaren 6ko Batzordearen Gomendioa, mikroenpresaren eta enpresa txikien eta ertainen definizioari buruzkoa (DO L 124, 2003.5.20, 36. or.). Datu hori estatistika-helburuetarako eskatzen da soilik.

Mikroenpresa: 10 enplegatu baino gutxiago dituen operadore ekonomikoa, zeinaren urteko negozio-bolumena edo urteko guztizko balantzea gehienez 2 milioi eurokoa den.

Enpresa txikia: 50 enplegatu baino gutxiago dituen operadore ekonomikoa, zeinaren urteko negozio-bolumena edo urteko guztizko balantzea gehienez 10 milioi eurokoa den.

Enpresa ertaina: mikroenpresa eta enpresa txikia ez den operadore ekonomikoa. 250 enplegatu baino gutxiago ditu, eta urteko negozio-bolumena edo urteko guztizko balantzea gehienez 43 milioi eurokoa da.

[7] Ikusi agiriko karatulako 20.7. klausula eta DOUEren lizitazioaren iragarkiko III.1.5. puntua.

[8] Ikusi baldintza orokorren 11.5. klausula.

[9] Erreferentziak eta sailkapena, hala denean, ziurtagirian agertzen dira.

Ezezko erantzuna bada: **Eman, gainera, IV. zatian falta den informazioa: A, B, C edo D, egokia den eran.** ***SOILIK, hala eskatzen dutenean, iragarkia edo kontratazio agiriak:*** Operadore ekonomikoak ziurtagiria aurkeztu dezake gizarte segurantzako kotizazioen ordainketari eta zergei dagokienez? Edo informazioa eman dezake botere adjudikatzaileak edo erakunde adjudikaziodunak ziurtagiri hori zuzenean eskuratzeko modua izan dezan doan kontsulta daitekeen estatuko edozein kidetako datu-base nazionalaren bidez? Beharrezko dokumentazioa eskuragarri badago formatu elektronikoan, adierazi hauek:	☐ Bai ☐ Ez (web orriaren helbidea, agintari edo erakunde bidaltzailea, dokumentazioaren erreferentzia zehatza): […] […] […] […]
Parte hartzeko era	**Erantzuna**
Operadore ekonomikoa beste batzuekin batera ari da parte hartzen kontratazio-prozeduran[10]?	☐ Bai ☐ Ez
Baiezko erantzuna bada, ziurtatu gainerako interesatu bakoitzak bere DEUC formularioa aurkezten duela[11].	
Baiezko erantzuna bada: a) Adierazi operadore ekonomikoak taldean duen funtzioa (arduradun nagusia, agindu zehatzen arduraduna, etab.). b) Adierazi kontratazio-prozeduran batera parte hartzen duten gainerako operadore ekonomikoei. c) Hala denean, talde parte-hartzailearen izena:	a): […] b): […] c): […]
Loteak	**Erantzuna**
Hala denean, adierazi operadore ekonomikoek eskaintza aurkeztu nahi duten loteak:	[]

B: OPERADORE EKONOMIKOAREN ORDEZKARIEI BURUZKO INFORMAZIOA

Hala denean, adierazi kontratazio-prozedura honen ondorioetarako operadore ekonomikoaren ordezkaria izateko gaituta dauden pertsonen izena eta helbidea.

Ordezkaritza, hala denean	**Erantzuna**
Izen-abizenak: Jaiotze-datarekin eta -lekuarekin batera, egokia bada:	[…]; […]
Jarduteko kargua/ahalmena:	[…]
Posta helbidea:	[…]
Telefonoa:	[…]
Posta elektronikoa:	[…]
Beharrezkoa bada, eman ordezkaritzari buruzko informazio zehaztua (erak, hedadura, helburua,...).	[…]

C: BESTE ERAKUNDE BATZUEN GAITASUNAREN ERREKURTSOARI BURUZKO INFORMAZIOA

Errekurtsoa	**Erantzuna**
Operadore ekonomikoa beste erakunde batzuen gaitasunean[12] oinarritzen al da IV. zatiko hautaketa-irizpideak betetzeko?	☐ Bai ☐ Ez

[10] Bereziki, taldearen, partzuergoaren, partaidetza duen enpresaren edo antzekoen baitan (ABEE).

[11] **Baldin eta hainbat operadore ekonomikok eskaintza aurkezten badute formalki ABEE eratzeko konpromisoarekin eta esleipendun gertatzen badira, DEUC formularioa aurkeztu behar dute, behar bezala beteta eta elkarteko operadore ekonomiko guztien ordezkariek sinatuta, non II, III, IV eta V. zatiak agertzen diren. Baldin eta hainbat operadore ekonomikok eskaintza aurkezten badute formalki ABEE eratzeko konpromisoarekin eta esleipendun gertatzen badira, gainera, AEBB formalki eratzeko konpromisoa aurkeztu behar dute, AKBAren eranskinak dakarren ereduarekin bat etorriz.**

[12] Gaitasuna kaudimena dela ulertu behar da.

Baiezko erantzuna bada, eman kontsideraturiko erakunde bakoitzaren DEUC formularioa aparte, zati honetako A eta B ataletan eskaturiko informazioa bilduko duena, eta III. zatian, erakunde horiek behar bezala beteta eta sinatuta.

Zuzenean operadore ekonomikoaren erakundean integratuta ez dauden langile teknikoak edo erakunde teknikoak ere sartuko dira hemen, kalitate kontroleko arduradunak bereziki.

Operadore ekonomikoak oinarri dituen gaitasunei dagokienez egokia denean, kasuan kasuko erakunde bakoitzak IV. zatian eskaturiko informazioa emango du[13].

D: OPERADORE EKONOMIKOAK OINARRI DUEN GAITASUNA DUTEN AZPIKONTRATISTEI BURUZKO INFORMAZIOA

Atal hau beteko da soilik hala galdatzen bada berariaz agiriko karatulako 14.2. klausulan.

Azpikontratazioa	**Erantzuna**
Ba al du operadore ekonomikoak kontratuaren zatiren bat hirugarrenei azpikontratatzeko asmorik?	☐ Bai ☐ Ez **Baiezko erantzuna bada eta datuaren berri dagoen neurrian,** eman aipatu banan-banan azpikontratistak: […][14]

Baldin eta agiriko karatulako 14.2. klausulan atal honetan emandakoaren informazio gehigarritzat galdatzen bada, zati honetako A eta B ataletan eskaturiko informazioa eman beharko da, eta III. zatian azpikontratista bakoitzak eman beharko du, edo kasuan kasuko azpikontratista kategoria bakoitzak.

III. ZATIA Baztertzeko arrazoiak

A: ZIGOR PENALEI BURUZKO ARRAZOIAK

2014/24/UE Zuzentarauko 57. artikuluko 1. idatz-zatian, baztertzeko arrazoi hauek ezarri dira:
Erakunde delitu-egilean parte hartzea [15].
Ustelkeria[16]. Iruzurra[17].
Terrorismo delituak edo jarduera terroristekin lotutako delituak[18].
Kapital-zuritzea edo terrorismoaren finantzaketa [19].
Haurren lana eta gizakien salerosketako bestelako moduak[20].

Zigor penalekin lotutako arrazoiak, 2014/24/UE Zuzentarauko 57. artikuluko 1. idatz-zatian aipaturiko arrazoiak aplikatzeko xedapen nazionalekin[21] bat etorriz	**Erantzuna**

[13] Adibidez, kalitate kontrolaz arduratzen diren erakunde teknikoak direnean: IV. zatia, C atala, 3. puntua.
[14] Adierazi azpikontratistak soilik hala galdatzen bada agiriko karatulako 14.2. klausulako a) hizkian. Adierazi baldintza orokorren 13.3.2.1. klausulan aipaturiko datuak.
[15] Delinkuentzia antolatuaren kontrako borrokari buruzko 2008ko urriaren 24ko Kontseiluaren 2008/841/JAI Esparru-erabakiaren 2. artikuluan definitzen den legez (DO L 300, 2008.11.11, 42. or.).
[16] Europako Erkidegoetako edo Europar Batasuneko estatuetako funtzionarioak inplikatuta dauden ustelkeria ekintzen kontrako borrokari buruzko Hitzarmeneko 3. artikuluan (DO C 195, 1997.6.25, 1. Or.) eta sektore pribatuko ustelkeriaren kontrako borrokari buruzko 2003ko uztailaren 22ko Kontseiluaren 2003/568/JAI Esparru-erabakiko 2. artikuluko 1. idatz-zatian (DO L 192, 2003.7.3.1, 54. or.) definitzen denez. Baztertzeko arrazoi horrek ustelkeria ere biltzen du, botere adjudikatzailearen (erakunde esleipenduna) edo operadore ekonomikoaren legeria nazionalean zehazten den bezala.
[17] Europako Erkidegoetako interes finantzarioaren babesari buruzko Hitzarmeneko 1. artikuluaren zentzuan (DO C 316, 1995.11.27, 48. or.).
[18] Terrorismoaren kontrako borrokari buruzko 2002ko ekainaren 13ko Kontseiluaren 2002/475/JAI Esparru-erabakian definitzen denez (DO L 164, 2002.6.22, 3. or.). Baztertzeko arrazoi horrek honako hau ere biltzen du: delitua egitera bultzatzea edo konplizitatea edo delitua egiteko saiakera, Esparru-erabaki horretako 4. artikuluak dakarren bezala.
[19] Finantza-sistema kapitala zuritzeko eta terrorismoa finantzatzeko erabileraren kontrako prebentzioari buruzko 2005eko urriaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2005/60/EE Zuzentarauaren 1. artikuluan definitzen denez (DO L 309, 2005.11.25, 15. or.).
[20] Gizakien salerosketaren kontrako borrokari eta prebentzioari eta biktimen babesari buruzko 2011ko apirilaren 5eko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011/36/UE Zuzentarauko 2. artikuluan definitzen denez. Erabaki horrek Kontseiluaren 2002/629/JAI Esparru-erabakia ordeztu zuen (DO L 101, 2011.4.15, 1. or.).
[21] Horretarako, kontratatzeko debeku hauek bildu ditu SKPLren 71. artikuluko 1. idatz-zatiko a) hizkiak: "*Epai irmoaren bidez zigortu izana honako delitu hauengatik: terrorismoa, erakunde edo talde kriminala eratzea edo osatzea, legez kontrako elkartea, alderdi politikoen legez kontrako finantzaketa, gizakien salerosketa, negozioetako ustelkeria, eragimen-trafikoa, eroskeria, iruzurrak, Herri Ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren kontrako delitua, langileen eskubideen kontrako*

Operadore ekonomikoak berak gorago aipaturiko arrazoiren batengatiko **zigor irmorik jaso** al du, edo hura ordezkatzeko, erabakitzeko edo kontrolatzeko ahalmena duen administrazio, zuzendaritza edo ikuskaritza organo bateko kidea den **edozein pertsonak**? Gehienez aurreko bost urtean emandako zigorra izan behar du, edo zuzenean aplikagarria izaten jarraitzen duen bazterketa-aldia ezarri duena.	☐ Bai ☐ Ez Beharrezko dokumentazioa eskuragarri badago formatu elektronikoan, adierazi hauek: (web orriaren helbidea, agintari edo erakunde bidaltzailea, dokumentazioari buruzko aipamen zehatza): […] […] […][22]
Baiezko erantzuna bada, adierazi[23]: a) Zigorraren data, 1.etik 6. era arteko puntuetan zein den eta arrazoiak zehaztuta: b) Zigorturiko pertsonaren identifikazioa []: **c) Zuzenean zigorrean ezartzen diren neurrian:**	a) Data:[], puntua(k): [], arrazoia edo arrazoiak: [] b) [ ] c) Baztertzeko aldiaren iraupena […] eta kasuan kasuko puntuak [ ]; Beharrezko dokumentazioa formatu elektronikoa eskuragarri badago, adierazi: (web orriaren helbidea, agintari edo erakunde bidaltzailea, dokumentazioaren aipamen zehatza): […] […] […][24]
Zigorra ezarri bada, operadore ekonomikoak neurriak hartu al ditu bere sinesgarritasuna frogatzeko, baztertzeko arrazoia dagoen arren (autozuzenketa) [25]?	☐ Bai ☐ Ez
Baiezkoa bada, azaldu hartutako neurriak[26]:	[…]

B: ZERGAK EDO GIZARTE SEGURANTZARAKO KOTIZAZIOAK ORDAINTZEARI DAGOZKI0N ARRAZOIAK

Zergak edo Gizarte Segurantzarako kotizazioak ordaintzea.	**Erantzuna**	
Bete al ditu operadore ekonomikoak **zergak edo gizarte segurantzarentzako kotizazioak ordaintzeko bere betebehar guztiak,** hura finkatuta dagoen estatuko herrialdean nahiz botere adjudikatzailearen [27] edo erakunde esleipendunaren estatuan, baldin eta hura finkatuta dagoen herrialdea ez bada?	☐ Bai ☐ Ez	
Baiezkoa bada, adierazi:	**Zergak**	**Kotizazio sozialak**
	[…]	[…]

delitua, prebarikazioa, funtzionarioentzat debekatuta dauden negoziazioak, kapital-zuritzea, lurraldearen antolaketarekin eta hirigintzarekin, ondare historikoaren eta ingurumenaren babesarekin lotutako delituak, edo lanbidea, ofizioa, industria edo merkataritza arloetan jarduteko inhabilitazio berezia. Kontratatzeko debekua izango dute zigortu diren pertsona juridikoek eta administratzaileak edo ordezkariak izateaz edo zuzenbidez zigortuta dituztenek, betiere kargua edo ordezkaritza indarrean badute eta karguari utzi arte".

[22] Errepikatu beharrezkoa den beste alditan.

[23] Errepikatu beharrezkoa den beste alditan.

[24] Errepikatu behar beste alditan.

[25] 2014/24/UE Zuzentarauko 57. artikuluko 6. idatz-zatiko aplikazioaren xedapen nazionalekin bat etorriz.

[26] Azalpenean, hartutako neurrien egokitasuna frogatu beharko da, eginiko delituak kontuan izanik (unekoa, behin eta berriz eginikoa, sistematikoa, etab.).

[27] Horretarako, kontratatzeko debekutzat hartzen du hauxe SKPLren 71. artikuluko 1. idatz-zatiko a) hizkiak: "*Herri Ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren kontrako delituen ziozko epai irmoaren bidez zigortu ez izana (...)"*; kontratatzeko debeku hau ezarri da idatz-zati bereko d) hizkian: "*indarreko xedapenen ezarritako zerga-betebeharretan edo Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan egunean ez izatea, arauetan ezarritako eran*"; eta idatz-zati bereko f) hizkian: "*Kontratatzeko debekuren baten menpe egotea administrazio zigor irmoa dela bide, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17 58/2003 Lege Orokorrean edo Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorrean ezarritakoarekin bat etorriz".*

a) Kasuan kasuko herrialdea edo kidea b) Zein da zenbatekoa, guztira? c) Nola ezarri da ez-betetzea? 1) Ebazpen administratiboaren edo judizialaren bidez: - Ebazpen irmoa eta loteslea al da? - Adierazi zigorraren edo ebazpenaren data. - **Zigorra bada, eta bertan zuzenean ezartzen bada,** baztertzeko epealdiaren iraupena. 2) Beste baliabide batzuk erabiliz. Zehaztu. d) Bete al ditu operadore ekonomikoak dituen betebeharrak ordainketa edo erabaki loteslearen bidez, zor dituen gizarte segurantzarako kotizazioak edo zergak ordaintze aldera, hala denean sortutako interesak edo ezarritako isunak barne?	[…] c1) ☐ Bai ☐ Ez - ☐ Bai ☐ Ez - […] - […] c2) […] d) ☐ Bai ☐ Ez **Baiezkoa bada,** zehaztu: […]	[…] c1) ☐ Bai ☐ Ez - ☐ Bai ☐ Ez - […] - […] c2) […] d) ☐ Bai ☐ Ez **Baiezkoa bada**, zehaztu: […]
Zergak edo gizarte segurantzako kotizazioak ordaintzeari buruzko beharrezko dokumentazioa formatu elektronikoak eskuragarri badago, adierazi:	(web orriaren helbidea, agintari edo erakunde bidaltzaileak, dokumentazioaren aipamen zehatza)[28]: […] […] […] […]	

C: KAUDIMEN EZARI, INTERES GATAZKEI EDO FALTA PROFESIONALARI DAGOZKIEN ARRAZOIAK[29]

Balizko kaudimenik ezari, interes gatazkari edo falta profesionalari buruzko informazioa	**Erantzuna**
Zure ustez, operadore ekonomikoak bete egin al ditu operadore ekonomikoak **lanaren, gizartearen eta ingurumenaren legeriaren arloko bere betebeharrak[30]?**	☐ Bai ☐ Ez
	Baiezkoa bada, operadore ekonomikoak neurriak hartu ahal ditu bere sinesgarritasuna frogatzeko, baztertzeko arrazoia dagoen arren (autozuzenketa)? ☐ Bai ☐ Ez **Hala egin badu,** adierazi hartutako neurriak: […]
Operadore ekonomikoa honako egoera hauetako batean dago[31]: **Porrota** Kaudimenik ezaren edo likidazioaren prozedura baten menpe. Hitzarmena egin du zordunekin.	☐ Bai ☐ Ez

[28] Errepikatu behar beste alditan.

[29] Ikusi 2014/24/UE Zuzentarauko 57. artikuluko 4. idatz-zatia. Hala ere, kontuan izan behar da baztertzeko arrazoi hauek Legeria nazionalaren arabera interpretatu behar direla, kasu zehatz bakoitzean adierazten den legez.

[30] Legeria nazionalean, iragarkian edo kontratazioaren agirietan edo 2014/24/UE Zuzentarauko 18. artikuluko 2. idatz-zatian kontratazio honen ondorioetarako ezarri den bezala.

Ondorio horietarako, hauxe dakar SKPLren 71. artikuluko 1. idatz-zatiko b) hizkiak kontratatzeko debekuen artean, hots, zigor irmoa jaso izanagatik kontratatzeko debekua, hauxe dela eta:

a) Lanaren edo gizartearen arloko arau-hauste oso larria, abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Gizarte Arau-hausteei eta Zehapenei buruzko Legearen Testu Bateginean xedatu denarekin bat etorriz, baita testu bereko 22.2. artikuluan ezarritako arau-hauste larria ere.

b) Ingurumenaren arloko arau-hauste oso larria, indarreko araudian ezarritakoarekin bat etorriz.

Kontratatzeko debekutzat hartzen da honako hau SKPLren 71. artikuluko 1. idatz-zatiko d) hizkian: *"(…) 50 langile edo gehiagoko enpresak badira, honako beharkizun hau ez betetzea: bere enplegatuen ehuneko 2 gutxienez izatea langile ezinduak, ezinduen eskubideei eta horien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onetsi duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren 42. artikuluan xedatu denarekin bat, arauetan ezarritako baldintzetan betiere*".

[31] Ikusi legeria nazionala, iragarkia edo kontratazioaren agiriak. Ondorio horietarako, SKPLren 3. artikuluan ezarritako erakundeekin kontratatzeko debekutzat hartzen da SPKLTBren 60. artikuluko 1. idatz-zatiko c) hizkian ezarritakoa: "*Borondatezko konkurtsoaren adierazpena eskatu izana, edozein prozeduratan kaudimengabetzat adierazi izana, konkurtso egoeran adierazi izana, salbu eta konkurtso horretan hitzarmenaren eraginkortasuna eskuratu badu, epailearen esku-hartzearen menpe egotea edo Konkurtsoei buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera inhabilitatu izana, konkurtsoaren kalifikazioaren epaian ezarritako inhabilitazio-aldia bukatu gabe*".

Lege xedapenetan eta arau nazionaletan indarrean daugoen era bereko prozedura baten ondoriozko antzeko edozein egoeratan. Likidatzaile bat edo auzitegi bat ari da haren aktiboak administratzen. Haren enpresa-jarduerak eten egin dira. **Baiezkoa bada**: Zehaztu: Adierazi zergatik den operadore ekonomikoa, ordea, kontratua burutzeko gai, jarduera horrelako inguruabarretan aurrera egitearen inguruan aplikatzekoak diren xedapen eta neurri nazionalak kontuan izanik[32] Dokumentazio hori formatu elektronikoan eskuragarri badago, adierazi:	 - […] - […] (web orriaren helbidea, agintari edo erakunde bidaltzailea, dokumentazioaren aipamen zehatza): […] […] […] […]
Operadore ekonomikoa erruduntzat hartu al da **falta profesional larri** batengatik[33]? Baiezkoa bada, zehaztu:	☐ Bai ☐ Ez […]
	Baiezkoa bada, neurri autozuzentzaileak hartu al ditu operadore ekonomikoak? ☐ Bai ☐ Ez **Hala egin badu,** adierazi hartutako neurriak: […]
Akordioak egin al ditu operadore ekonomikoak beste operadore ekonomiko batzuekin **lehia faltsutzeko?** **Baiezkoa bada**, zehaztu:	☐ Bai ☐ Ez […]
	Baiezkoa bada, neurri autozuzentzaileak hartu al ditu operadore ekonomikoak? ☐ Bai ☐ Ez **Hala egin badu,** adierazi hartutako neurriak: […]
Ba al du operadore ekonomikoak interes gatazkaren baten berri kontratazio-prozedura parte hartu duela eta[34]	☐ Bai ☐ Ez

[32] Ez da beharrezkoa izango informazio hori ematea nahitaezkoa bada operadore ekonomikoetako bat baztertzea a) eta f) hizkietako kasuetan, legeria nazional aplikagarria dela bide, **inolako salbuespenik gabe** baldin eta operadore ekonomikoa kontratua burutzeko moduan badago. SKPLren 71. artikuluko 1. idatz-zatiko c) hizkian xedaturikoa bete beharko da.

[33] Hala denean, ikus bitez definizioak Legeria nazionalean, iragarkian edo kontratazioaren agirietan. Puntu honetan, SKPLren 71. artikuluko 1. idatz-zatiko b) hizkian xedatu dena bete beharko da, hain zuzen SPKLren 3. artikuluan ezarritako erakundeekin kontratatzeko debeku hau ezarri duena: "*lanbidearen arloko arau-hauste larriarekin zigortu izana,(…)".*

[34] Kontratatzeko debekutzat hartzen da honako hau SKPLren 71. artikuluko 1. idatz-zatiko g) hizkian: "*pertsona fisikoa edo pertsona juridikoaren administratzaileetako bat Estatuko Administrazio Orokorraren kargu nagusiak arautzen dituen martxoaren 30eko 3/2015 Legearen, Autonomia Erkidegoetako arauen, Herri Administrazioen Zerbitzuko Pertsonalaren Bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legearen kasuetako batean, edo Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan arauturiko edozein hautetsi bada, lege horretan ezarritako moduen eta zenbatekoen arabera. Parte hartzen duen kapitala duten pertsona juridikoak hartuko ditu bere baitan debeku horrek, aipaturiko legerian ezarritakoaren arabera, baita aurreko paragrafoan aipaturiko pertsonala eta kargu nagusiak eta horien zerbitzuko hautetsiak ere. Era berean, kasu bietan, ezkontideak ere hartzen ditu, maitasunezko elkarbizitzako antzeko harremanak dituzten pertsonak, goranzkoak eta beheranzkoak, baita aurreko paragrafoetan aipaturiko pertsonen bigarren mailako odolkidetasun gradua edo afinitatea dutenak, kontratazio-organoaren titularrarekiko interes gatazkak daudenean, edo kontratatzeko ahalmena eskuordetu zaien organoen titularrekin edo ordezkoekin*" eta h) hizkian, berriz: "*pertsonak*

Baiezko erantzuna bada, zehaztu:	[…]
Aholkuak eman al dizkio operadore ekonomikoak edo harekin lotutako enpresaren batek botere adjudikatzaileari edo erakunde esleipendunari, edo **bestela esku hartu** al du kontratazio-prozedura prestatzean[35]? **Baiezkoa bada**, zehaztu:	☐ Bai ☐ Ez […]
Behar baino lehen deuseztatu egin al zaio operadore ekonomikoari aurreko kontratu publikoren bat, aurreko kontraturen bat erakunde esleipendun batekin edo aurreko emakida kontraturen bat, edo kalte-ordain edo bestelako antzeko zigorrak ezarri al zaizkio aurreko kontratu honi dagokionez?[36] **Baiezkoa bada**, zehaztu:	☐ Bai ☐ Ez […]
	Baiezkoa bada, neurri autozuzentzaileak hartu al ditu operadore ekonomikoak? ☐ Bai ☐ Ez **Hala egin badu,** adierazi hartutako neurriak:
Hauexek berretsi al ditzake operadore ekonomikoak: Faltsutasun larriagatik erruduntzat hartu ez izana baztertzeko arrazoirik ez dagoela egiaztatzeko edo hautaketa-irizpideak betetzen direla egiaztatzeko eskaturiko informazioa ematean[37]. Informaziorik ezkutatu ez izana. Botere adjudikatzaileak edo erakunde adjudikaziodunak galdaturiko frogagiriak berandu gabe aurkeztu izana, eta Bidegabe saiatu ez izana botere adjudikatzaileak edo erakunde adjudikaziodunak erabakiak hartzeko prozesuan, edo kontratazio-prozeduran bidegabeko abantailak eman liezazkiokeen isilpeko informazioa lortu izana, edo baztertzeari, hautatzeari edo esleitzeari buruzko erabakietan eragin garrantzitsua izan dezakeen informazio engainagarria zabarkeriaz eman izana[38]?	☐ Bai ☐ Ez

kontratatu izana eta horien inguruan Estatuko Aldizkari Ofizialean Estatuko Administrazio Orokorraren kargu nagusiak arautzeko martxoaren 30eko 3/2015 Legearen 15.1. artikuluan aipatzen den ez-betetzea gertatu bada, edo Autonomia Erkidegoetako arauetan, hain zuzen betetako karguaren gaitasunekin zuzenean lotutako enpresa edo sozietate pribatuetan zerbitzuak eman izanagatik karguari utzi eta hurrengo bi urteetan. Kontratatzeko debekuari eutsiko zaio kontrataturiko pertsonak enpresaren antolaketaren barruan izango den aldian, baina gehienez bi urtez kargu nagusiari uzten zaionetik zenbatzen hasita".

[35] Ikusi SKPLren 70.1 art.: "*Bateragarritasun baldintza bereziak*".

[36] Kontratatzeko debekutzat hartzen da honako hau SKPLren 71. artikuluko 2. idatz-zatian: "*Kontratuan funtsezkoak diren klausulak bete ez izana, 202. artikuluan adierazitakoaren arabera ezarritako burutzapen baldintza bereziak barne, noiz-eta ez-betetzea agirietan edo kontratuan arau-hauste larritzat xedatu denean, betiere enpresaburuak doloa, errua edo zabarkeria izanda, eta horren ondorioz zigorrak ezarri behar izan badira edo kalte-ordainak eman behar izan badira*". Idatz-zati horretako d) hizkian, berriz, hauxe bildu da: "*Lege honetako 3. artikuluan bildutakoetako erakunde batekin sinaturiko edozein kontratu irmotasunez suntsiaraztea, erruduntzat jo direneko kausa batengatik*".

[37] Kontratatzeko debekutzat hartzen da honako hau SKPLren 71. artikuluko 1. idatz-zatian: "*140 artikuluan (SPKL) aipatzen den erantzunkizunpeko adierazpenean datu faltsuak ematea edo bere gaitasunari eta kaudimenari buruzko bestelako datuak ematea, edo 82.4. artikuluan (sailkapenaren arloan) eta 343.1. artikuluan (lizitatzaileen eta enpresa sailkatuen erregistroei buruzkoa) artikuluan ezarritako informazioa nahitaez jakinarazi beharra ez betetzea, hari egotz dakiokeen kasuagatik";* eta 71. artikuluko 2. idatz-zatiko a) eta b) hizkietan, berriz: "*Bere proposamena edo hautagaitza bidegabe kendu izana edo kontratua bere alde esleitzea galaraztea 150. artikuluko 2. idatz-zatian xedaturikoa ez betetzeagatik ezarritako epean, doloaz, erruaz edo zabarkeriaz*" eta "*Kontratua formalizatzeari uztea, bere alde esleitua, 153. artikuluan ezarritako epeetan esleipendunari egotz dakiokeen kausagatik*".

[38] Ikusi SPKLren 71. artikuluko 1. idatz-zatiko e) hizkia, kontratatzeko debekuari dagokiona.

D: BOTERE ADJUDIKATZAILEAREN EDO ERAKUNDE ESLEIPENDUNAREN ESTATUKO LEGERIA NAZIONALEAN EZARRITA EGON LITEZKEEN BAZTERKETARAKO BESTELAKO ARRAZOIAK

Baztertzeko arrazoi nazional hutsak	**Erantzuna**
Aplikagarriak al dira iragarkian edo kontratazioaren agirietan zehazten diren bazterketarako arrazoi **nazional hutsak**[39]? Iragarkian edo kontratazioaren agirietan eskaturiko dokumentazio hori formatu elektronikoan eskuragarri badago, adierazi:	☐ Bai ☐ Ez (web orriaren helbidea, agintari edo erakunde bidaltzailea, dokumentazioaren aipamen zehatza): […] […] […] […][40]
Baztertzeko edozein arrazoi nazional hutsa aplikatu beharra badago, neurri autozuzentzaileak aplikatu al ditu operadore ekonomikoak? **Hala egin bada,** azaldu hartutako neurriak:	☐ Bai ☐ Ez […]

IV. zatia: Hautaketa-irizpideak[41]

Hautaketa-irizpideak direla-eta (zati honetako α atala edo A-D atalak), hauxe adierazten du operadore ekonomikoak:

α: HAUTAKETA-IRIZPIDE GUZTIEI BURUZKO ADIERAZPEN OROKORRA

